EGUNA JEL

Gaur, larunbatez, 18 urtetik 45 artekuak gudari kontrol agiriak atara bidr ditue.

Lgo. urtia | 44'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. otsalla 20'gna. larunbata | 15 eunen

Kolonien auziak ingelesak burutik

"Ez sartzeko" auzi ori amaitu danik ezin esan lei, diñoe, italiarrak. Nazitarrak zabalkundea egiten. - Bakearen aldezko batzarra.

"Gudeak lagatako azur pillak Europa'ko agintariak iguintzeko edu izan bediz; beste ondamendien egarririk ez begie izan" ("L'Aube")

Hitler! Mikearen arpegia ba'dau be emekeri gitxi erabilten dau Alemania'ko buru ařo onek. Tratadnak apurtzen ezta makala. Eta oraintxe be koloniei begira dabil, mozolo-mozolo.

LINDBERGH, BASAMORTUAN GELDI

Roma. — Jerusalen'diko izpařak diñoenez, Lindbergh koronelak basamortuan jatsi beařa izan dau. Rutbarh ondoan jatsi zan, eta ondar-ekaitza deritxena bide zala izan zan jatsiera.

Ezetariko okerik barik ĉagoa bera ta emaztea.

¡ Zure atsekabia !

¿Nora zuaz zu zoragařizko
Lili baltzaran
Begi urdiñoi?
¿Nora irudimenez

Zeure buruboi beteta?
Txoritxu bařitxubak
Alaiu biařko
Zařube bidian.

Bařia ba'zan be lenau
Zure ezpan gorijen nagusi,
Orain zeu dan-danoi
Zatituba.

Ta bijotza
Samiñez beterik!
¿Zer jazo zatzu
Egaztiño ořon oři?
Auřpegi iĥun ořek

Darakus argiro:
Zeure maĥiaren bařirik
Eztozu iñundik.
¿Nun dozu nun
Ainbeste bidař oin urdiñak
Bekaiztutako
Gorputz edeř-lirařa?

¿Nun, zure ludiko ixař
Diztiradunena?
Donostia'ko matiaren

Begi argijak,
Begi edeřak
Ezin ikusi!
¡¡Au tamala!!

GOXABAŘAN.

ITALIA'TIK YATORKUZAN IZPAŘAK

Roma.—"Ez sartzeko" auzioi aurera duala ta oraingo batzařean aurerakada aundia egin dala diño "Journal de Italia" izparingiak.

Ciano'k bere asmuak azaldu ta saspigařen ilabetean artu dauz bere erabagiak "Ez sartzeko batzordeak"

Erabagi ořek alkartasun-politika joker jatof ta aurepidetsua asten dala dirudi.

Gobernu bakotxak bere egikizuna betea nai leuke izparingi ořek. Italiařak España'ratuteko izan daikezan urtepide guztiak esitu dauz Italia'ko Gobernu'ak.

"Ez sartzeko" auzioi, guztiz amaitu danik ezin esan daike baiña. Oindiñokařen arakatu beařa daben arazoak ba-dira; urea kanporatzea ta politiko naste-zaleei urtepidea España'n emotea.

BAKEAREN ALDEZKO BATZAŘA

Londres. — Aldun sozialista batek, bake-aldezko Batzar nagusia lenbailen estadu guztiei dei egitea onuragarri izango litzakela osoro, iñoan. Geřak bereak dituan ondamendi ta kalteak eragotziteko bide ori egokia zala-ta.

Baldwin'ek, dipuptadu oři atzo erantzun eutsan, onela. Gobernu ingeles asmo oři ondo baño obeto deritxa baña bide ori artzeko oraingo aldia ez dala egoki uste dau.

NAZITAŘEN UGARIA!

Cap Town. — Apirka-egoaldeko Batzako gobernuak aldaři-kizki bat zabalduko dau, eři alde onetan nazitařak dařabilezan zabalkunde ta azpikeriak dirala-ta.



Euzkadi'ko basterak. Bai, na'ko ikuspegi polit bai.

KOLONI-AUZIA, LONDRES'EN

Londres. — Cámara de los Comunes legetxean, eztabaidazko autu bizi bizia izan zan koloniaen auziaz.

Lord Buxton laboristeak, kolonietaz estadu batzuk ekonomi-arauzko onura ugari lortu daroela, iñoan. Beste batzuk, ordea, gitxiago bai'liran, onura olakorik ez daroe eskuratu. Ořa oraingo kolonietzazko jokaera. Alemaniazko itunbena bařiztau egin bear dauala Inglatera'k, iñoan, eta beste koloni geyagotara be, aginpidea zabaldu.

Oraingo saleroskeia jokabidea estadu askoren aldez eta Alemania'ren kaltez zala, geitu eban, eta bide ortaz, Inglatera gerarantz joyala.

Lord Plymouth erantzun eutsan, koloniaen aginpidetza aldatuteak oker askо sortuko leukela. Ginebra'n agindaritza-saiak zear bařiztau beařa legoke. Alemania'k edonun dau merkatua bere gayak saltzeko eragozpen barik; orezkero, len-gayak, materias primas diralakoak aurkituteko ez dau iñungo aldetan oztoporik izango.

EUROPA'KO LATERIEN ARTU-EMONAK ETA ALKAŘEN ARTEKO ZER-IKUSIAK

Paris.—"L'Aube" izparingiak diño:

Sei ilabete ta erdi gizaseme-trizkantzan daruaguz. Trizkantza ořetan onenak yuakuz. Emondako berbeari iruzur besterik egiten ez dautsen Europa'ko Lateřiok ondamendiori begira doguz sei ilabete ta erdietan. Begira bakařikez, guda-alderdioi euren izkilurik eta gudaririk onenak emon be, bai.

Gerea egiz goroto ba-eben, gereoi burutzeko alegiñak egingo ebezan, eta

Mussolini! Nok eztau entzun bere izenik? Otso amořauaren antza dau. Eta oraintxe be luř bařietara begira dago. Abisiñi gaxoaren antzera, bere menpe lotuteko.

ez gudeoi puztu. Europa ondatu zan. Au entzuteak poztu egiten dauz asko.

Gudako azuř-pillak Europa'ko agintariak igointzeko-edu izan bediz; beste ondamendiren egařirik ez begie izan. Bakeari eusteko Laterien-arteko alkartasuna lortza beař-beareko dana etsiko al-dabe zentzun eta biotz oneko gizonak.

EUZKO GUDA-OÑETAN

Itxasertz aldeko guda-oñetan jardunaldi bizirik ez genduan suma atzo. Markiña aldekoetan bai gogoř ekin eutsen, ez ordea luzaroan.

Azkenengo artutako lekuan gogoř eta gogoř jaři nairik, zapadore diralakoak azpergabe ekin eutsen. Osteranzean, gudariak pozez ebiltzan eguzki epeletan. Zira ta euritakoak ezituen beař izan atzokoan.

Kanpantzar eta Elgeta'n, egon beste ezer baño.

Araba'ko guda-oñetan baketsu eta bare, astiari asti ta erdi eskeñiaz. Atsedenez dagoz oraingoan gure mutilak.

Ez dogu, beraz ezer goraberarik gure irakurlieі azalduteko.

RUSIA KONTROL-ZALE

Moscu.—"Pravda" izpařingiak España'ko lateřiko itxas-bazteretako kontrolarekiko idazlan luze bat argitaratu du ta kontrol ortan tařteko izateko gertu dagola rusiař Almirantazgoa ere azaldu du.

EZ DU KONTROLIK SORTUKO

Paris. — Eskeiñi idazki bat eskuratuko dio Eashington'en dagon prantzetař enbajadoriak Gobernuari. Idazkiak dionez, kanpoko ařtu emanetarako Prantze'ko Gobernuak ez du kontrolik sortuko.

Ingelesak idazten dabe

Italia'ren zorrak eta lorrak

Abisini'ko gerrearen ondorenak

Roma.—Izpařingi ingeles baten ordezkari John Whitakr'ek, italiař sendi biařtsuei buruz idazki bat egin dau, eta Estadu ontako diru arluatzuz egundoko azalpenak egin ditu.

Abisinia'ra - řar ainbat eta ainbat gaste ta gizon joan ziran, eta euren sendiak, sendi txiroak nok irabazi ezta lotu bai-ziran, italiař Gobernuak laguntza eskeñi eutsen ořen ordez, 1935 azilaren lenengotik 1936 urtearen azkena arte, 600 miloe lira uretan emon eutsen sendioi. Bañan bakoitzari dagokiona, ezer gutxi, oso gutxiz urtia izan da. Gudarien emaztiei, 4,50 centavo dolařenak egunero; semiei, 2,50 centavo. Gobernuak diñonez, aloger-sari ori geitua izan da; gudari bakoitzari 9 centavo egunero emoteko izentau zan, eta ori Etiopia'tik etxera bialtzen ei eben.

Egoera ta une berezietan, sari ořek jaso egingo ditue; emaztiei 4 lira egunero, umiei bat eta erdi, ta gurasoei, iru.

Estaduaren urteroko dirutzaetan ez dabez gastu oneik saftuko. 177 miloe utsa, deficit izango dau diru?arlo ortan.

Mila miloe dolař galtzaya bai izan ei eben Italia'k Abisinia'k gera ortan. Orain, gastu arek zuritu eziñik jo ta su asi dira bañan alperik.

Saleroskeia-arloak, Itali'ren kaltezko joera dauka, ta miloeařkizaz euki bere

Ori dala-ta, ezin eřiaren ibilera ta gora-berak lengo seneratu. Gauzen prezioak altza beařa izan dau Gobernuak, eta ortixek datoř gudari sendiei sariak jasotea.

Zergak geyago jasoterik ez dau nai Gobernuak eta oftarako alak eta leřak egiten djařdue.

Saneuřien auzi latz eta estu ori, aipatu ta azaldu ai izan dau Finanzatako bakaltseñak, bañan eřiak aitutekо eran ez dau argi agertu.

Onela mintzatu zan. Aldiařuntean, len-gaitora 3.500 miloe liran balioa eta gauza erdi-amaituetan 1.500 miloe lirana erosten eralei daun estaduak, aldiak aldi, diru jařegikeria softua izango dau, eta eři bařuan saneuřiak aldatu eta erabařitzea nai ta ezko izango dau.

Saneuřien ardura-batzařak egingo dau emen lan ori, eta neuři egokien bařu mugatuko dau erabařitze ori.

Euzkotarron ikurriñak Asturias-en pisto ema tendu

Oraindik atsedentxoa igarotzen gaude Amayur'ko gudariok, eta egon aldi ontan zerbait beři zeori ematis nai. Inguruko mendijen beři ikasi degu, ta ondo dakigu areriyua mundik apuřtu....

Kañoi ta tiro otsa da nagusi inguru onetan, eta ořek ezan nai du bi alderdiak gogoř daudela. Aurki gera gu ere zerbait egin beařian, eta zuek anai maiteok gutzaz une naigabetzu auetan, aren oroitu. Terzioak jakin dute euzko-gudariok onuntz etoři gerala, zergatik eranun gabean parapeto batetik bestera deadar egiñak dira adierazlaz onela: "Ya sabemos que han venido esos catolicos vascos de Basilio Alvarez..." eta ¡ořelaxe alajaña!

Oviedo naiko itxia dago. Mutuř bat besterik ez dauka igez egiteko, ta ufen-go idazkio orduko urean zearo itxi es...

Emen elizak eřiak zaudela ezaten zuten oř geundenian. Eta ezin gizurtatuko degu egi ori. Gu gauden balaran bat zearo apuřtua dago, ta bertako apaiza ere erail omen zuten. Ala ere denak ez dira egiak. Apaiz jatořak bizirik daude, eta eraildakoak zerbaiten efua izango zuten...

Beste eři batean andere batzuk galdetu ziraten; ia egiz gu katolikuak giñan? Baietz ezan nion. Gure gudate ontako lenengo ezaugaři Jaungoikua dala, eta beste guzien gain bera degula buru. ¡Afituak gelditu ziran gaxo ak! Kurak pozik egongo omen lirake Bilbo'n.

Gure ikuriñak zabalik daude geren lekutan, eta bertako biztanleak inguratik igarotzen diran guzitan ¡Viva Bizkaya! deadař egiten dute.

Gure umore ona ere ez da palta aide auetan. Efitxo batean (Afiondas da bera ta, aufeko idazkian beonen beři eman nuan), dantzauriya atera zuten gudariak, eta eři guzia txoro-biran enparantzan zan txaloka.

Inguru guzi au esan leike abertzale degula euzkera da nagusi, eta beste mintzaerarik ez da entzuten. Onela. Agife jaunaren geltokiko itza betetzen da. Bere itzak ziran: "Aguř eta euzkeraz itz-egin". ¡Ze itz edeřak guzion buru degun zaindarjarena! ¡Euzkaldunak nagusi Asturias'en...! ¿Zerbait ezaugaři eramango ote degu'ba..?

* * *

Izpařingiak ere eldu dira, ta portatzen dira baten batzuk. ¡Gure janari gexoena orixe bait-da! Jařaiořelaxe.

Oviedo oso ongi ikusten degu unero. Narank mendia dauka ezaugaři, ta bere mutuřian -so labarmen ageri dira parapetuak. Egun auetan berebil asko dabil atze-aurean, eta dirudienez igezteko prestu daude. Irureun omen daude ilaran. Nolabaita-ere bilduř dira aurki guretzat izango dala edo... ¡Utikan pizti maltzuřak!

¡Betor lenbailen garaitza! Ořela gure Aberi kutunera lenbailen juan gaitezen. Bizi bagera gure poza, ta erailtzen ba'naute... betiko Donokia. Ontan ziuř-ziuř nago. Aguř.

EGUZKI.

Alemanak, japondarrak eta

Mantxuria eta Mongolia'ko gobernuaren saltsak

Rusia'tik yatorkuzan izparrak

Londres. — Alemandař eta japondaren alkartasuna "Ez sartzeko Batzordeak" berberak ipartu eban. Inglatera'k guda-izkiluz ondo orniduarte ez dau ausago erabagirik artuko.

Nora-ez-ara dagozan beste lateřiak koldartzeko yabilkuz zalapartatsu pasista lateřiok "Izvestia" izparingiak adierasoien dabenez.

Mantxuria'ko japondař gudariak Mongolia'ko Gobernu agindupean dagozan luřaldeak eurengandu dabezala-ko Mogolia'ko Gobernua'k Mantxuria'koari idazti erakutsi dautso asarea ta Mantxuria'koak asaře ořek ez daula oñařirik, guzuřezko izpařak dauzala oñař-ta erantzun dautso atzera.

Mongolia'ko Gobernua'k izpařok arakatu ta luřaldeok ikuskatu ostean Mantxuria'ko ta Japon'go gudariak egiz luřaldeak eurengandu euzana ta geiago eurengantzea nai dabena jakin dau ta orixe aitzen emoten dautso beste oař batek idazti-bidez Mongolia'ko Gobernua'ri.

Artuemonetan jařaitu dagien eta beste naste sakonago batzuk sortu ez daitezan Mongolia'ko bastařetatik japondař eta mantxuritař gudariak atarateko eskatu dautso bařimen-bařiz Mantxuria'ko Gobernua'ri.

Auzioi atzeratu daiten, kontizu, Mantxuria'ko Gobernua'k otsalaren 3'gn. ufutidazki bat igoři eban. Ufutidazki ořetan Mongolia'ko Gobernua'ren idaztian aitatzen diran eři ta luřaldeak ikuskatu ta luřalde ořetako izpař garbiak bialdu dagiozala diñotso

Jardunak jardun mantxuritař ta japondař gudariak len egozan luřaldeetatik aldeketa doguz.

EUZKO GUDAROSTEAN

SANTANDER'GO IZPARR

Adar otsa ta ezer ez.- Tabako ugari egiten da.- Nekazari arazoak ikasteko etxea

ADAŘ-OTSA

Santander. — Gauř goizeko amaretan adař-otsa entzun zan; gordelekuetara juateko deia genduan adař-otsa; an ziran nunbaiten paxisten egazkiñak. Eři-agintariak izentatuta daukezan gordelekuetara ziran biztanleok.

Minutu biren buruan eizako erkaldař sazpi egazkin agertu ziran eta paxistenak uxatu egin ebezan, ausago, ta amař minutu bařu gordelekuetatik urteteko adař edo turutotsa jo eben eta guztiak euren zeregiñetara biurtu ziran.

NEKAZARI-ARAZUAK IKASTEKO ETXEA

Santander. — Nekazaritza-Arduradunak ikasten daukazen, aldakuntzen aftean, nekazaritza-arazo ta zeregiñak ikasi dagiezan etxe berezi bat egiteko asmoa dau.

Etxe ori Pedreña'ko pelota joko-zelaian egingo da.

GORDELEKU-GIŃAKO DIRUA

Santander.—Alkatearen eskabideari erantzunaz Uren Batza'ko leendakariak gordeleku gintzako 150.000 laurleko aufez emon dautsoz alkateari.

Oraingo autu oneik dirala ta Udala'k dauzan beařizanei erantzuteko daukan gogo onegaitik eskeřak emon eutsozan lendakari oferi.

TABAKOTAN ZENBAT EGITEN

Santander. — Emengo tabako olean iñoz baiño lan geiago egiten da. Ona emen otsaila buratu dadiñeko egingo diran lanen bařі:

1.250 kajetiladun 520 ol ontzi; 0,70 laurleko 650.000 pakete.

0,30 laurleko 2.160.000 kajetila ta 5 miloe 740.000 batu.

Urteko ilik motxena danařen oraingo onetan 350.000 txokor gitxienez egingo dalabez.

Duan egiten diran efegařiak zaurietxetako gudarі zauritu ta gaixoentzat dira.

Eun gizonezkotik gora ta beste bosteun andrazkok lan egiten dabe tabako-ola ořetan.

Mallabi

IBAIZABAL GUDA-ZAILA.—Aspalditxu onetan emen auzoko urijan Ermua'n, doguz Ibaizabal guda-sail aberṫzaleak, euzko-mutil kementsuak, geṫtu ta zuṙ dagozanak. Aberija azkatu, ta jagotek arerijo zitalen atzapaṙetatik. Zuizkilube aldian dabela, zindo, ta adoretsu. Ta orain anai, oaṙbat egin biotzuet; ez aiztu zekulanbe euzkaldunok badogula geukaz beste gaṙantzi aundiko izkilua, geure arerijo denari guda gogoṙetanikua egiteko. ¿Zer ote ba ori mutilak? Entzun ondo. Au dogu, geure euzkera ele maite ludijan dan izkuntzarik garbi, aberatz ta aṙtezena. Ia ba, euzkeldun gudarijok, suizkiluba lez ibili geṙtu beti toki denetan, aiztubarik beti ta betiko Euzkeria, esanaz denari gu euzkeldunak gera, ta euzkeraz mintzatuko gera.

EUZKO-IKUŔIÑIK.—Zjetz atzenduta dagoz emengo udaletxeko ziñegotzijak euzko-ikuriñagaz, ezan, lei oraindik eztabela jakin Euzko-Araudija ta Euzko-Jauŕlarija geuriak doguzela Euzkadi geure Aberija eraenduteko. Aberṫzale benetakua dan ziñegotzirik bai ote da Malabi'ko udaletxean. ¿Ez da itxurarik oraingoz?

GAIETANTXU ATZITU EI-DABE. Emen adizkide askotxu iduki duzan, Gaitantxu arerijo koidaṙ, zitela, atrapau ei-dabe Nabaṙniz aldeko mendijetan. ¿Egija ote da, egunokaz emen entzuten doguna, azkenengo auteskundietan bere autoṙkija bere sendi gustijakaz "Gaitantxu" aldun aterateko emoniko gixontxu bat, ziñegotzi lez jaṙaitzen dala emengo udaletxean? ¿Zeṙ otediño izpeṙ onekaz "Areitijoko" Andeṙtxuk?

Olakorik bada, doiela bere lagunakana, bestelan goṙijek ikusi biaṙen aṙkitukoiaku gixontxu txaldan ori. Etxaok aiko-maikotarako aztirik, ta labe osteko zabeltzuri epelandako une txaṙetan gagozak.

EIZMENDI.

Ermua

Ibaizabal gudaroste talde ed- au emen daukogu ilabetian.

Beronen zertzeladarik iñok emoten ez daben lez ara neu EGUNA'ren baimenarekin zertxobait azaldutera.

Eṙi gustiak poz-pozik aṙtu zinduzan mutilok, aberṫzale jatoṙak iñun baño be, palta geiago egiten eben gure eṙi maite onetan eta. Bai goiko mailako ta bekuak mutil onak dirudie, baño euzko-usain gitxi dariue erderia asko. (euzkeraz jakinda). Euzko abestirik gutxi edo bapez, eṙbeste kuak nai aña. Euzkeraz ezin esan daikezan erderazko berba zikin batzuk be, bai.

Len bete-betian gagozak eṙi onetan, gure areriuak gogoṙak dozak ta; beti katua saguaren zain egon oi dan lez zain dagoz geuri zer edo-zer txaṙa esateko. Zubek asko egin zeinke gure-alde zuek erakutsi onak emon ezkero ta abeṙtzaletasuna dan lez erabiliko ba zendu beste txori bat litzake guretzako aufera mutilak, euzkel usain geitxuago, Euzkadi'ren geure onerako.

Oṙaitiño danak ez zaituaz baṙuan saṙtuko lengo egun batez Areitio ganeko Itxaropenako Ama Neskutzari otoi egitera juan nintzanian gudaroste onen Iñaki San Miguel aldria ango bitxabalian ebilen bere kirolak egiten. Begira egon nintzan pizka baten ta atzera nentoṙela, euren atsedena egiteko batu ziran ta "Azkatasun eguzkia" edeṙto abestu eben. Atzera jira eginda begiak malkoz beteta pozik baño pozagorik etxeratu nintzan eta "Oṙaitiño be oindiño abeṙijaren maitetasuna euron biotzetan ba-yaukek". esan neban neure kolkorako.

Beste gauza tamalgaṙi bat be ikusten dot. Gudaroste oni jankitza lar dalata batzuetan euki oi dau ta batzuk aṙtzera juaten dira ta emon be ondo baño obeto dago baño ikusten ditut biaṙkitzen edo premiño bakuak asko ta beste asko gure aurka beti izan diranak garbi izateko amaṙetatik sortxe paxistak. Neure ustez ori ez dago ondo ta eṙiko nagusiak emoten daben txarteldunak ori aṙtu beaṙ leuke agintaria iñok baño obeto dakie zeiñek daukan oṙe biaṙa. Arazuoṙi atondu daizun eta dana egin daigun Jaun-Goikuak aginduten dauskun moduan.

Txinduŕi

Durango

EZ BIAŔA.—Astelenjan, Miren Deuna'ren txaidian dagon bijan, berbil batek zauritu eban txifinguntzan jayan mutil gaztetxu bat 11 urtekua, zauriturik bere belaun bijak eta gorputzaldia, gustiz txaṙto eruan eben Eŕuki etxera.

BIAŔ DANENTZAT.—Aapaldi onetan mutikuen aṙtian aṙtu ixan da ojitura zoritxaṙezko bat, otura au da berbileri atze aldian igotia, nai ta onek gustiz arinka juan, eta onetan jatsi oro nun, jakin barik ondoren edo aufetik datoṙen besterik, aṙiko aundijagaz, ba'dira zauritu batzuk, eta azteleneko ez biaṙara onixegaṙik ixan zan, asko ta asko diraz alan dabixenak, eta iñok ezer esaten ba'dautze lotzobakokeriz itzez biaṙeko bat jaurtiten dabe, eta askotan birauren bat.

¿Nuen arduria eta da otura au kentzeko? Gurasoena edo endoriena. Nuena dan euren bizkaṙera jago dagixela, kalte geyago egon baño len.

"EUZKADI" EGAZKIÑEN ALDEZ. Batzokijan edegita dago aṙpideau, ¡abeṙtzalia! nora begira zagoz zeure arduria betebaṙik? Len bai len emon egixu zeuri ixene agertu daigun bestien aṙtian erakutsirik zeure matasuna Euzkadi'ko Jauŕlaritzarentzat.

AGURTU.—Geure aṙtian ixan gendun leng baten, Eibaṙ'ko euzko - idazlia "Gaztelu" poz-pozik itz egin gendun geure gora berak.

"ARATOZTIAK".—Aurten tamalez, igaro dogun jai onek konturatu baṙik, guda zoṙitxaṙekuonak ez dausku itxi ezer egiten. Datoṙen urtjan poz gaṙitxuaguak ixen deutezala.

ENDORIENTZAK.—¿Noz atonduteko asmua dauko gure eṙiko agintariak, Mikel'diko loikeri tokija? aspaldixuan aṙpintuta dago, eta aṙizku aundija dago gexorenbat etoṙteko, bagin dagun uxain txaṙa eta loikeṙija bertan geldixen da bere tokira juan baṙik. Aṙduria aṙtzeko ordua da.

Gexozañentzat

BIZKAIŔKO GAITZEPEL-AURKAKO BATZORDEA

Lau gaxo-zain ikuslari eta gaxo-zain idazkari bat izendatzeko elburuz, azterkizun bidezko lei bat eratu degu. Gaxo-zaiñok, Bilbao'ko Gaxotegjan jardun bearko dira; eta urteroko lan-saritzat, bimila bosteun leurleko jaso. Leikide izan naiko duten emakumeak, ezartzera goazen zer-nolak baieztu bitzate:

1'go. Ezkongaiak eta 20 urtetik 35 bitartekoak dirala.

2'gn. Osasunez ongi dabiltzala. Au, ezagutza bidez baieztu beaṙekoa da. Eta Epai-maiak izendatuko dituan gaitzepel-aurkako lekuetan bizitziari buruzko saioak egin dituztela.

3'gn. Gaxozain izendunak dirala eta Bizkai'ko ongile-etxeren batean jardunkizunak egin dituztela

Bereizteko era

1'go. Ongaien leia.—Leian aldeko tantoak sortu ezaj ditzaketen ongaiak abetxek izango dira: Ikastolak emandako izen eta baiezpenak; osasunbidetzako eta gaitzepel-aurkako Bazkunetan egindako eginkizunak; eta eleak jakitea.

Idazkari izan naiko dutenak laister idazkera balekiteke, aldeko tantoak bereganatuko lituzkete.

2'gn. Leia. Ona zeintzu ariketak osatuko duten:

a) Idatzitako ariketa bat. Epai-maiak derizkion aldia iraungo du; eta zozketa bidez egokituako gaiak azaldu bearko dira. Iru gai ojetatik bi, Gaxozaiñen ikaskizun-egitarauari buruzkoak beste beriz gaitzepelari dagokiona.

b) Ekintza ariketa ba Bizkai'ko gaitzepel-aurkako etxeren batean egingo da; eta Epai-maiak adieraziko duan eraz.

c) Makinaz idazte ariketa bat. Baño au, idazkari nai izan dutenak bakaṙik egin bearko dute.

Ongaien leia eta Leiaren a) eta b) ariketak aitatzen diran maietan aṙtuko dira aintzakotzat. Eta maia olei begir baztertuko dira gai ez diran leikideak.

Aitatu diran ariketei, derizkionak erantsi al izateko eskubidedun da Epai-maia.

Osasunbidetza Erki-Ikuslaria izango da Epai-maiaren Lendakari. Eta Bizkai'ko gaitzepel-aurkako eginkizunen Zuzendarjak osatuko dute.

Eskabideak, Bizkai'ko Gaitzepel-aurkako Batzordearen lendakarjari zuzenduak izan bitez: eta Gaitzepel-aurkako "Ledo" etxean utziak. Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoan Dei au argitaldua izan go dan egunaren ogei uren buruan.

Lendakaria, Laiseka'taṙ Eŕupin.

Eup euzko-gudaria!

Aberia'ren aldezko buŕuka
Zindo-sendo abilen gudari,
Ai nik ai banera iṙe izena
Ortziko izaṙetan iraṙi!

Neke aundiak, estu-laṙi beitzak,
Dilindan beti iṙe bizia
Ezaṙi ezak, kristau aizen oṙek,
Jaungoikoa'gan uste guzia.

Aberi sendo ta zoṙiontsurik
Jainkoa gabe ezin izaki.
Aren nagusitza, aren legea
Lenentzat bear dituk eduki.

Iṙe nekeak Euzkadi'rentzat on,
Zuzenbidetik abilelarik.
Ire Aberia gora na! badok,
Eztaukak iñon beste biderik!

GUDARIARTEKO.

EMAKUMETASUNA

Emengo emakumeak ustegabe batean autarki jabedun arkitu ziran. Erkalaren legediak aitortzen duanez emakumeak gizasemeen eskubide ber-berak ditu.

Eta zenbait emakume, eskubide oien babesean afoturik, gizonaren lanbide ta eginkizunetan baṙeatu da. Oker au Europa geienean ezagutzen da, Amerika'ko zenbait laṫeṙjetan areago.

Doixteŕian, Alemanj'n, emakumeak arduraz alegindu ziran gizonai zegokien eginbeaṙetan sartzeko. Zenbait eginkizun gizasemeak bezin ondo ezezik obeto egin dezaketenik ez degu ukatzen.

Baña, beste eṙi guzietan bezela Alemanj'n ere lanik ezaren mamu ikaragaṙia agertu zan eta baj bere atzapaṙak eṙia estutu ere. Aginntariak laṙitu ziran eta gizarte auzia bere bideratzeaṙen erabaki au aṙtu zuten.

Gizonari lan tokia utzi ta ezkontzen zan emakumeari Gobernuak 1.000 marco (garai aṙtan milia bat peseta) auferatuko zizkio ezkon-kabi: tajutu al izateko. Seme bakoitzagatik bostetik zati bat gutxituko zan. Au da, bost seme izan ezkero Gobernuak auferatutako milia marco kitotuak geldituzen ziran.

Doixtaṙ emakumeak ezaṙutu zuten gizonari kendutako lan tokia beṙiro itzultzea zegokiola eṙiaren onari ta asmo oṙek eraginda "etxeko lanetara" bildu ziran.

Francetaṙ emakumea ere ausartu da gizonaren bide ber-beratik ibili bear oṙetan. Baña Gob..nuak ez djo autarki eskubiderik ezagutzen. Zuek pentsa francetaṙ emakumien amotua nolakua izango dan! Eskabide era guziak erabili zituzten baña agintariak beti entzungor.

Emakumien azti-doaiak ordea etzeuden lo, ta ¿bai al dakizue zer asmatu zuen agintariak bereganatu nai oṙetan? Paris'ko erakustoki aundi ta eceṙenetan iragarki apaṙenak aski etziṙala, auxe esan zuen: "gure eskubide aldez zeozer egiten dutenai galtzerdiak konponduko dizkiegu". Geigo oraindik, aldi aṙtan Jaurlaritza-buruzan monsieur Steigg Legetxeṙa sartzera zijoan batean bizkaṙ gaṙean galtzerdi bat jaṙi zion emakume batek. Galtzerdi ertzean idazkun au: "Emakumeoi autarkia eman aṙen zuen galtzerdiak ez dira konpondu gabe geldituko".

Francetaṙ emakumeak alegiñak egin dituztela ezin ba ukatu.

Azkenik, eta gizaseme kutsua azaldu nai diran emakumien ordez, Japondaṙ emakumeen beṙi emango dizugu.

Japondaṙ emakumeak ezin eskatu dezake gizasemeen eskubiderik. ¡Toki onean! Txiki txikitandik, emakumea gizonaren otsain dala erakusten dio amak alabatxoari.

Eta nexkak "Ani sam" (anai jauna) deitzen dio anaitxoari.

Ori txikitan. Eskontzerakoan beṙiz japondaṙ emakumea jostalu bat bezela da gizonarentzat.

Ludi zeaṙ emakumeai begira ibili ondoren euzkotaṙ emakumea, benetako euzkotaṙ emakumea, ¡bai begiko!

A-BI.

Motriku'tik Bilbora

Motrikuaṙak kontu-kontari
egon dira emen ikertzen,
oiek dioten kontu guziak
ametz bat zait iruditzen.
Gipuzkoa'tik bialdu eta
Bizkaian dira aṙkitzen,
izugaṙizko zitalkeriak
azi dira oraiñ azaltzen,
bazteṙ guzian karlataṙ oiek
jaṙi nai dute agintzen.

Eṙian dauden karlataṙ oiek
afokeriak aṙtuta,
reketa eta falangistakin
dabiltz guziak batuta.
Relijiua mingaiian ta
gofotuakin nastuta,
nai duten danak egiten dabiltz
ego aizeak poztuta,
egun bateak bestia dakaṙ
ez daukagu ez aztuta.

Irten beaṙ zuten egun oṙetan
Motrikuaṙ karlataṙak,
azi ei ziran indaṙ ta gogoṙ
aṙturik zu eta gaṙak.
Esanaz "Joan baño lenago
zuritu oiei kazkaṙak,
ori gutxi da makil batekin
apurtu denai bizkaṙak".
Jaunak baṙkatu ezin lezake
oiek duten griña txaṙak.

Amak lepoan aufak zutela
azi ziraden bidean,
izara aundi bat ikuriñatzaz
aṙturik beuren aufean.
Dana buztita euriarekin
tiruak beriz airean,
nekaturikan jauzi beaṙik
bildurez bide danean,
aufṫxuak dar-dar otzik zutela
amaren bulaṙ gaṙean.

Gauza guziak izan oidute
beti beuzen bukaera,
orduan alkaṙ ikuzikogu
zela diran gora-bera.
Eskubiderik dagon ala ez
jaurtitzeko erbeztera,
azi zeintekiez maletarekin
pazatzen Frantzi aldera,
ez badezute jipoi edeṙ bat
aṙtu nai denok batera.

ANDONEGITAR KUIREKA.

Euzkadi'ko basterrak



Urbia zelayan aurkitzen da basotxono ikusgaŕietaiko au.

BILBAO'KO izparringijak diñuena

"Euzkadi"

"A los siete meses de guerra" ixenpuṙututen dau lenengo idazlana. Guda onen aldirik gaṙantzitsubena ikusten gagozala diño.

Aldi askorik ez dala guda zelayetan jazo diran jazokun laṙijak aiztu gura ixatia kaltegaṙi baño ez dala esan gura dausku. Eta eṙi aldezlaantzo agertuten diran asko be, jazokun lotsagaṙi oṙeikandik uṙun ez dirala bixi ixan be, esan gura dauskulakua dogu.

Egijaren aufian begijak ertslia agertutia baña, eguzkijari gau estaikija aurpegiratutia lez edo da. Auzoko txakuṙak etxekuari asaṙienaz oldaṙtuten dautsan biiaṙtian etxe-baṙuban nastia soṙtuguran ibiltiari, etxeko telatura aṙijak jaurtiten lakoxia dala, agertuten dau.

Eṙi eta gixonen azkatasunaren auṙka jagi ixan diran paxiotaṙen auṙka jagiteko bakaṙik batu ixan diran eṙi-aldezliak, oron areyua dan azkatasun-eralia betu ta deuseztu aṙtian, asmo bardiñak batu ixan ebe zanak bananduteko bidjak egiten ibiltiari azpikeri antza aṙtuten dautso.

Atietan daukagun areyuari atzerantz eragiteko biaṙekuak yakuzanak, baldintza bi oneik ei-dira: batasuna ta makurtasuna. Batuta ibili, ta gofik dagozanen esana zintzo egin.

Batasun lokaṙi ori uṙatu baṙik zuzendarijak erakusten dauskuben bidetik ibiliten ikasten ba-dogu, gurendea be geuria ixango ei-da. Gurendara eruango gauzan bide bakaṙa orixe ei da ixan be: batasuna ta makuṙtasuna.

"Tierra Vasca"

"Interpretaciones. El más grave peligro." Ixenpuru oneik daruazan idazlana "E." idazliak ixenpetuten dau.

"Paxiotaṙen ustia, ¿zer da?", ifanduten dau beriala erantzuteko: "Bixi era gustija geldituria."

Eta aṙiskurik aṙiskubena, paxiotaṙen asmo deunge oṙi deṫuten dautso.

Paxiotaṙen egitaraba oṙixe ei-da, ixan be: indaṙ bidez; izkilu-bidez edo gose-bidez, ludi gustija euren menpe jaṙtia. Paxiotaṙak gixa-bixitzeaz osuan jabetu gura dabe. Gixa-bixitzea, salokiko salgayaren entzera, aberats okiṫuben saleroskaitzat eurekandu gura dabe. Eta gurari oriloṙtuteko, gixeṙtia ta gixabatza osua bedeuseztutia yaoke: onez ezin ba-dabe, txaṙez. Izkilu bidez ezin ba-dabe, gose-bidez.

Paxiotaṙen guda-era ori, baṙiz, gixa-azkatasunarentzat eta gixabidientzat beaṙiskurik-aṙiskubena da.

"Lan Deya"

"A nuestra posición. ¿Cuestión de enemiga?" Ixenpuru oneik dira lenengo idazlan-buruban iṙakuṙten diranak.

Idazlan au, "El Liberal" zirikaṙijak aufeko egunian egin ixan ei-tsan zirikadeari erantzuteko da.

Norberenian gabi-aṙdatza be ikusi ez da, iñorenian zamaṙik txikijena be garbi aṙdaztuta ikusteko gexo zifala daukenentzat, Cesar'en esakun bat begijetaratuten dautsoe: "Gixonak, atsegin yakena, pozik zinistuten dabe; oṙdez, ostera, "buru bakotxako buruceretxi bana" diñuan esakuna, ezestu-egiten dabe".

"El Liberal"en ustez, ba, etoṙkixunaren giltza, bere uste ta asmoetan baño ez dago.

"El Liberal" izpaṙingijan dauanaṙ- usdia; langile gustijak gixaṙtekeri zaliak ixan biaṙ dirala esatia, langilien jauntxu agertutia lez da, paxiotaṙen zigoṙari txaluak jotia.

Euzko-langiliak ezetara be ontzat aṙtu ezin leiken eretxi oṙek, baña, Euzkadi'n auṙerakada aundirik ez dau egingo. Euzko-langiliak ez dira aren ez oṙen areyuak, zuzentasunaren adizkidiak baño.

"El Liberal"

"El peligro de los explosivos". Ixenpuru onegaz asten dau "Mendibe'taṙ T."ek bere idazlana.

Left-gayen aṙiskuba agertutiau, aurtemin Gastedi Alkaṙtuben batzokijan jazo zan jazokun negaṙgaṙija aṙatuten dau. Jazokun oneik, zuṙtasunik ezaren ondorenak dirala diño zentzuna galduta umekerijetan dabiltzanen lana dala.

Guda-oñian bixitzea galtzia, tamalgaṙija dan-aṙen, jasan leṫekena ei-da, erijotzatik uṙian aṙiskurik-aṙiskura ibili biaṙ dalako. Baña guda-atzian era oṙetan bixija galtziari, burubakotasuna baño besterik ezin deṫu ei-leikijo.

Auzokidiak bixi diran etxe-oñetan dagozan batzokijetan era oṙetako istandakijak eukiiia gebendu egin biaṙ ei-litzake, aginṫarijen aginduz gebendu be.

"Euzkadi Roja"

"Movilización práctica." Olaṫxe ixenpuṙutuṫuten dau lenengo idazlana. 18 urtetik 45'eraṙtekuak guda oñerako igiiṫutiari, edeṙto deritxo. Deṫutakuetatik gitxi batzuk baño ez ei-dira lenenguan guda-oñeratuko.

Eta guda-oñeratu baṙik geratuten diranak ia zer egin leiken ifanduten lau.

Ifaun oni, batzuk, ondo eranṫzun ixan dautsoela, diño. Olaetan lana etan geratuten diranak beñepein, asmo edeṙak ei-labez: lau-ordubak amaitzen diranian, gudarako gertetan iñardu, guda-izkilubak ezagutu ta erabiliten ikasten eta abaṙ. Aldija datoṙeneko gertauta egotiari, zuṙtasuna deṫuten dautsa, deṫu be.

"El Noticiero Bilbaino"

Gipuzkoa'ko ta Araba'ko guda oñetako izpaṙak emoten dauz.

Eṙi aldezlien suagak, Eibaṙzia ikusten dabezan beste aldekuen gudoṙnidun belbilei ta oldaṙtuten ei-dautso, ta sakabanatuta imiñi.

Guda oñetan gudarijen aldaketea danian be, eṙi-aldezlien suagak, gertu egoten ei-dira. Eta aldeketarik ikusten dabeneko, suagetako berunbilak be, an ixaten ei-dabez.

Azkenengo oldaṙketan be areyo asko luṙera eratsi ixan ei-dabez.

Baranbio-aldetik beste aldeko gudari bi onuntza etoṙi zirala diño. Eta Eibaṙ aldetik, baṙiz, paxiotaṙak onuntz jaurti ixan dabezan emakume ta umiak etoṙi ei-ziran.

"C. N. T."

"La C. N. T. habla" ixenpuruṫuten dau lenengo idazlana.

Euzkadi'ko Jaurlaritza'n aulkija eskatu ixan ebenetik ona, alditxuba igazi ixan dala diño.

Eta agertuten dauan gurarija, antxe Euzkadi'ko Jaurlaritza'n jezaṙleku bat eukiiia da.

Len agertu ixan eben gurarija berbera ei-da orain agertuten dabena be: Jaurlaritza'n leku bat ixatia.

¿Zer gertatuko da?

Atzoko idaztian agindu bezela, emen nator agertu nayaz, abere eta egazti oyentzat janaria ekaṙita azkozaz merkiago aterako dala Nekazari Zaingoa.

Utzi dezagun alde batera, nekazariarentzat daukan onura edo probetxua, abel-goṙi eta astoakin egiten duen lanakin; baita ere utzi dezagun, zenbatza ziuṙik ez degulako txekor bei eta egaztien araglakin artutzen duena, eta ikusi dezagun bakaṙik esne ta aṙautzakin artuzen dana, eta janaritan eman biadana; baita ere ikusi dezagun janaria oyentzat ekaṙi ezik, zer ordaindu bearko diraden ekaṙi biarko ditugunak.

Atzo esaten nuen Bizkai'ko abere eta egaztiak biaṙ dituzten janariak ilean 12.000 tonelada diradela.

Janari oyek egin dezagun kontu saltzale eta erosle denen eskuetatik igaro eta nekazariaren eskuetara irixten diradela; bataz beste 45 laurleko toneladа edo 45 eunen edo centimo kiloko, eta izango degu 5.400.000 laurleko diradela.

Ikusi dezagun zer artu litekien:

Bizkai'n saltzen dan esnea ilean, da 6.900.000 litro; jaṙi deyogun oni bataz beste 55, eunen edo centimo litroko, eta ditugu 3.795.000 laurleko.

Egaztiak jartzen dituzten aṙautzak 312.500 amabiko dirade; jaṙi zayogun oni ere bataz beste bere sal-neuṙia 22 eṙial amabiko eta onela ditugu 1.718.750 laurleko; guztira esne eta aṙautzaren onura 5.513.750 laurleko.

Ara bada nun ikusten dan esne eta aṙautzaren emaitzarekin bakaṙik ordaiṫzen dala ondo janaren ordaindu beaṙa, au da: nekazarien abere eta egaztiak beren etxeetako gaṙera eman biar zaiona, utziṙik aragi eta lanaren onura baseṙian bertatik ematen zaionaren alderako.

Esne eta aṙautzari jaṙi diotan salneuṙiak, ziur nago goratuak izango dirala askozaz baldin kanpotik ekar-70 eunen edo geyago ordaindu biarko litzake, eta aṙautzak beṙiz nork daki norako iritxiko liraken emengo baseṙietakoa bezelakoa izatekotan.

Agertu ditugun zertzelada oyen aufian argi eta garbi ikusten da, janaritan ordaindu biar degunarekin ezin liteke emengo nekazariak eman dezaten eṙextasunakin, naiz esne eta naitzen azten ba'dirade, bada esnea bera aṙautza jaṙi, biar duenaren etxietan, eta onez gaṙera, ez litzakiela izango emengoa bezelakoa.

Oyez gaṙera emengo abel-goṙiak janarik ezakin indar gabe geldituta eta kentzen badirade, ¿norkin egingo ditu nekazariak soro eta basoetako lanak?

Ara emen beste buru auste bat agintarientzako; bada nekazariak lana egiteko laguntzarik ez badute gure soroak ez dute emango ez garirik, ez artoṙik, babaṙunik, azarik eta oṙelako beste ainbat barazkirik oraingo eran; orduan lenaz gaṙera goseak estutuko ginduzke.

Eta zer gertatuko litzake gure aberaztasunik aundiena dan "ganadua" kenduta?

Askok ezango dute guda bukatutzean erosita egiña dagoela.

Baj; au onela litzake ola bateko tramankuluak edo lantegi bateko nagusiak lanerako tresnak bezela baldin balirake. Oker zaudete oṙetan zaudetenak.

Nekazariak berarentzat onak diraden abere edo ganaduak eratzen gutxienez lau urte biar dute. Emendik ikusi zazute bada zenbaterañokoa dan aitatu detan arazo oṙek duen gaṙantzia.

Bekar bada Nekazaritza Zaingoak Bizkai'n dauden abere eta egaztientzat biaṙekoa dan janaria, lenaz gaṙera buruauzte gogoṙa izan ez dezaten.

EZTANDA.

ATZERRIKO IZPARRAK

Alemanak be España'ra gudariak bialtzia galerazo dabe

Von Ribbentrop'ek poto egin.-Lincoln'en izan zan bultzi jaustea dala-ta.-Besteiro, España'ren ordezkari, Argentina'n. Zein bide artuko ete dau Amerika'k?-"Nueva Celedonia" egazkiña.-Egipto Laterri Batza'n sartuko ete?-Beste izparrak.

EGIPTO LATEŔI-BATZAN SAŔTUKO?

El Cairo.—Lateŕi Batza'k urengo ilean erabagiko dau Egipto Batza aretan sartu ala ez.

Ginebra'n efi onen eskarja ontzat artuko ala ez, urduri dago efia.

EGAZKIŃEN AURKA

Roma.—Afatsaldeko seiretan, egazkiñen erasoaldien kontrako neuŕi sayoak egin zituen.

Turutotsa izan zanean, argi guztiak itzali zituen, eta kalietako ibilketa geldi lotu zan.

Jendea, agindu bezela, izentautako gordelekuetara joan zan.

"NUEVA CALEDONIA" EGAZKIŃA

Londres.—Alejandria'ra eldu ezetariko okerik barik, "Nueva Caledonia" egazkiña.

Amalau orduan, orduko 170 mila egiñaz, 2.500 mila bide eginditu.

Bost lagun eroiazan bafuan.

GURUTZ GORI'REN ORDEZKARIA

Barcelona.—Gibraltar'ko Gurtitz Gori'ren jandolako ordezkaria, guda-oiñak dagozan ainbat efi ikusten ibili da, Odol-Gexotetxeen beaŕ izan eta garemiñak jakin ondorean, Ginebra'ra idazti bat bialduteko.

Sastago'ko gexotegia ez du naikoa premiñak ondo beteteko.

Guda ontan, 30.000 idazki zabaldu ditue alderdi bat eta bestean mendeko senidiai, alkaŕen baŕi adiraziaz.

LINCOLN'EN IZAN DAN BULTZI -JAUSTEA

Londres.—Londres'tik uan bultzi bizkoŕari Lincoln'en jazoyakonaren baŕiak eldu yakuz.

Bultzi-jauste oŕetan iru il eta amairu zauritu ei-dira. Jaurte oŕen eŕua burni-eraiiak aldetxo beaŕ ziran lekuan ez aldatzea izan ei da ausago.

EUREN BURUAK AGERTZERIK NAI EZ

Londres.—"Daily Herald,'en izpaŕiariak diñonez Franco'k izpaŕingi-arazuetarako aukeratu dauan Falange'ko Bolin buruzagiak italiaŕak euren aŕtean iñoŕk ikusi ez dagizan ta italiaŕok agertu ez daitezan oaŕ baŕuk egin ei -dauz.

VON RIBBENTROP'EK, POTO EGIN

Londres.—Erabagi-gai bi ekaŕtzana Von Ribbentrop'ek bere azkenengo osteran, ondo jakin dogu.

Alemania'k bereak ziran kolonietan jaubetutekoa baŕiro bere, bata; eta bestea, boltxebike politikaratzazkoa, Rusja'ri kalte nondik egingo asmoa aldean ebana, jakiña.

"The Times,,'en izpaŕkari eŕiketariak aren ibileraz bere iritzia argitaldu dau, onela: aleman ordezkariaren gorabera ta jun-etoriak pon egin dabena, dagoneko agiri dala.

Alemania'ren asmoari erantzun zeatza emon dautsala Inglatera'k esango genduke gudontzi baŕiak ugari egiñaz.

"¿ZEIN BIDE AŔTUKO DU IPAŔ -AMERIKAK?"

New York.—Ipaŕ-Amerikaŕak arduraz lotu-dira Inglatera'ren guda-tramankuluak egiteko asmoari; guda ontziarekikoari batez ere. Oŕexeri dagokio buru-belaŕi.

Japon'era begira aŕtu dituan edo asmook, esaten dute.

"New York Times" izpaŕingiak galdera auxe dagi: "Inglatera guda-tramankuluz ornitzen ari dan bitaŕtean, zein bide aŕtuko du Ipaŕ-Amerika'k?"

BESTEIRO JAUNA ARGENTINA EMBAJADORE

Buenos Aires. — Besteiro'taŕ Julen, sozialista alduna, izentatu dute Argentina'n España'ko embajadore izateko.

Argentina'ko Gobernuak eman du bere oniritzia.

TXINDI-TXARTEL BEŔIAK

Murcia.—Eŕeal biko txaŕtelak zabaldu zituzten atso urian. Udalak atera ditu, aurez España'ko Txinditegiak ontzat emanda.

Bereala zabalduko dituzte laurleko baŕ eta biko txartelak ere.

ALEMANIA BURU-MAKUŔ LOTUKO OTE?

Berlin.—Agintariak eurak esanda jakindakoa da izpaŕa. "Ez-sartzeko" Batzoŕdearen legeari men egiteko asmoak erabaki bjurtzen diaŕdu Gobernuak.

Gudari-batzaŕik ez ezatu, ez bialdu ta España'ra ez saŕtzekoa da legea eta Alemania buru-makuŕ lotuko dan itxaropena dago.

Lege ori dala-ta, españaŕ lateŕiko gudatera joan nai dutenak eta auzi ori buruz zabalkunderik dagitenak, gogoŕ zigoŕtuko ditu Gobernuak. Baita oŕela jokatzen dutenak atzeŕitaŕak ba'dira ere, españaŕak izan ezik.

Alemania'ko Gobernuak lege ori iñoŕk apuŕtu ez dagian, beaŕ diran neuŕi guztiak aŕtuko ditu.

ALEMANIA OTZANDU-EDO..

Paris.—Berlin'en dagon Izpaŕ-Etxe atzeŕitaŕ batek dionez, españaŕ lateŕiko gudate-arazoa batzaŕean aztertu ondoren, Hitler'ek España'ra ez gizon eta ez izkiluŕik bialtzea zala agertu zion batzaŕkide-buruari.

Itxuraz, Alemania'k ez ditu bialtzen orain len bezelako gizon-talde ta guda-tramankulurik. Ba-du oŕek egiaren antzik.

Balitzake, gaiñera, gudatean aurenengo ibiliaŕ diran alemaniaŕ gudalburuak atzerakoa egitea. Izpaŕ batzuk diotenez, beintzaŕ, agintaritza-arazoetan italiaŕak dabiltz aurenengo.

ALEMANIA'N, BE, ERAGOTZI DABE

Berlin.—Alemandaŕak España'ratuteko gudari-taldetan saŕtu ta urteten eragozten daben legea Alemania'tik zeaŕ España'ratu nai daben atzeŕitzat, be, izango da.

Aginduoi austen dabenak ondo zigortuak izango ei-dira. Agintarien euren aŕtean lege oŕeri jaramon gitxi egiten ei-yako.

BIAŔ, BEGOÑA'KO ELIZAN

Arantzadi'tar Ingartzi'ren gogo - alde

Euzko-Pizkunde ta "Tipográfica General,,'go Banakari Arduradun-Batza'k urte askotan Batza oŕetako zuzendan izan dan Arantzadi eta Etxebeŕia'taŕ Ingartzi zanaren gogo-alde meza bat esanarazotea erabagi dabe.

Meza ori biaŕ, igandez, goizeko amaŕetan Ama Begoña'koren Eleiza'n izango da ta Euzko-Abesbatza'ko ta Euzko-Gastediko abeslari-taldeak abestuko dabe mezioi.

Mezataŕa etoŕteko deia Eukadi Baltzua'ko burukide izan zoranei ta Arantzadi zanaren lagunei ta Alderdi'ko agintariei egin yakoe.

Oŕeitarikoren batek mezatarako dei -berezirik aŕtu ez ba-dau, gure arduŕarik eza azketsi ta datoŕela diñotsogu. Dei-berezia meza oŕetarako Euzkadi'ren Irarkola ta Banakola'ko ta olaetako langile gustiei egiten yakoe. Gusti oŕeik Arantzadi jaunaren langilekide izan dira urte askoren buruan -eta.

Meza oŕetara araso edo oragozpenik ez dauken aberŕzale gustian juango dirala uste dogu. Aberiaren-alde bere bizi gustian egin-alak egin dauzan jaun ori gure omen gustien duin da.

Dei-berezia dabenentzat toki berezia izango da Eleizan. Altarako aurenengo ego-lekuak eta uŕenguak eta eleiza erdian luze izango diranak dei-berezidunentzat eta beste gustiak eŕiarentzat.

ALEMANI'TIK

Gobernuaren erabaqiak

Berlin.—Koipe, orio eta oriokietzak erabagi baŕiak artu dauz gobernuak. Ori dala-ta eŕia asaŕe dago.

ESTATUTEN

Galdu edo irabazi

Rio Janeiro.—Gudeau beingoan erabagi dagien eta danok batera jo dagien agindu ta oaŕ batzuk igoŕi dautsez Franco'k bere menpeko gudari -agintariei.

Gerea luzatuaz duana ikusirik Franco'k galdu edo irabazi egiteko asmua dau oraintxe.

Ondo dakienak diñuenez diraz ta ostingo eskuartez uŕi yabilku ta gudea iiebetean edo bian luzatu ba-daike ondatuta dago.

LATERRIARENTZAT

Paris. — Loiree-Olivier d'Argentenil, Toulousse'ko Aero - Francais bazkuna eta Cannes'go egazkin tokia lateŕiaren mende geratu dira.

Atzoko eguna euzko zaingoetan

Datorren eguaztenian sopa-gayak, lentexak, arroza eta gozakia bananduko yakoz erriari.-Eta txokolatia emotia izan lei.-Aldasoro jaunaren esanak.-Beste gayak.

Saleroseta ta Orniketan

Eroskekak

Euzko-jaurlaritzak izan dauan azken batzaŕean orniketa arazoaz jardun eben geyenik. Aurerantzean, gure jaurlaritzak Euzkadi'rako bakaŕik egingo ditu erosketak, beste luŕaldetakoak lan ori egiteko gertuten asj dirala-ta.

Egindako lanaren zertzeladak

Uŕilaren lenengotik urtaŕilaren 31' gnarte. Orniketa Zuzendaritza Nagusiak, 124.000 tonelada janari eŕaŕi ekaŕi ditu. Euzkadi'rako, 46.000 izan dira, ta Santander'era ta Asturias'era bialiak, 28.000 eta 49.00z.

Zaingo ontako lagunak eta alzeŕietako-ordezkaritzak loŕa naikoa izan dabe, beraz, arazo ontan.

Arerioen ontziak egin nai izan dituen galerazpenak gorabera, guzti orixe egin dogu.

Arlo onetzaz, idaztitxo bat argitalduko da estadistika zeartasunez beterik, gayak erosi, ekaŕi, banandu ta ordainduteko egin diran lanak zenbateragiñokoak diran guztiak jakin dagien.

Zaingo onek erosi dituan gauzak bere aginpide luŕalderako bakaŕik izan ba'lira, euzkotaŕok jan-gai ugariago tzango genduna, eta aurerantzean bai izango doguna.

Lengo saneuŕietan

Zaingo onen erosketaetan ekarten diran gayak, garagaŕilean eben prezioz salduleko erabagi dau Euzko jaurlaritzak, saneuŕi-jasotzeak ondoren onik ezin leyelako izan.

Banaketa erea

Oraŕartena baño gauza geyago bananduteko txaboia banandu dogu era ortaz.

Lasteŕ, txokolatia ta galetak bananduko ditugu.

Osasun - Zaingoa'k be, badiarduumientzat eta gexoentzat esne batua bananduten.

Orniketa arloa au libreta bidez, Bizkaya'n egin da lenengo estadu osoan. Asturias, Santander eta Levante'tik argibide eske eldu yakuz arazo au zelan egin ikasi nairik.

Guda oste beaŕizanak

Oŕez ganera, euzko-gudarostea ta geyago be, Zaingo onek oraindu beaŕ izan dauz; eta Gizarte Laguntza'ren premiñak bete be bai.

Ez dau ba, iñortxok be izpiderik baŕitsukerietan eta esamesetan jarduteko.

Jabaldiko platerkada bakaŕa zer dan

"Euzkadi'ko Egunerokoa"n atzo agertu zan azpilkada bakaŕazko ostatu arauna, ostatu eta jaletxietan Oŕezkero, lege da, eta bete beaŕeko.

Izpaŕingi batek arazo au oker ulertu bait-eban argitutea dagokigu.

Azpilkada bakaŕa, auxe da: sopa, lanikokoa eta nai-ondokoa ala sopa, aŕain ala aragi, eta mai-ondokoa.

Aginduau naitaezkoa dabe jatetxeak. Zaingo ontako Zuzendaritzara, "menu" eta saneuŕiak bialdu beaŕ ditue, ta ganera, agirian jaŕi jatetxean.

Bilbao'n ezeze, gure menpeko luŕalde osoan da agindu ori.

Gorabera guztiak oŕa argi esan. Gero ez bedi iñortxu, ez jakiñaren aitzekiz au ta ori egiten asi.

Agindu au beteten danentz zaintzaleak ipiñiko ditugu, eta uts-egileak, zigortu.

Bildots okelea

Bilbao'ra ekaŕi bearko ditue bildots guztiak uŕengo barikutik aurerantzean. Emengo abere-ildegira ekaŕi, ta emendik bananduko dogu bildots-okelea, liburutxu bidez, bakoitzean baki batera, alde guztietara zabaldu daigun.

Baŕuki oneik izango dira; miña-alde eta oalgintza-aldeak, Bilbao, eta baseŕi-aldeak.

Janari banaketa

Emaztenez, ila onen 24'gn. sopa-gayak, aŕoxa, lentexak (tilistak) eta gozokia bananduko doguz. Bearkada, txokolatia be bai.

Frantzia'ko kontsularen emokuna

Atzo goizean, Frantzia'ko konsula izan zan Zaingo ontan, eta eun peseta emon zituen Gizarte Laguntzarako. Eskaŕik askoak egin eutsezan.

* * *

Jatetxientzako agindu auxe emon dau Saleroseta'k arduradun jaunak.

AGINDUA

1'go. atala. Agindu au Agintaritzaren Egunerokoan argitaldua izango dan unetik, mueta guzitako ostatu eta jatetxe guziak, jaki edo azpil bakaŕa eman bezate. Ona jaki bakartzat zer jotzen degun: sopa eta beste azpil bat, eltzekaiez, aŕaiez, aragiz edo beste jakiren batez. Gañera mai-azken bat.

Sopa naj ez dusnak ordez ezin ezer eskatu dezake.

2'gn. atala. Bizilagunak dituzten etxeak eman bitzate oiturazko otorduak jaki arautuei buruzko txartel edo agirien bitartez jakiak bereganatuaz. Beño lengo atalean ezaŕitako mugaz baŕendik jardun bitez.

3'gn. atala. Mueta guzietako ostatu eta jatetxeak, bidali bezaizkiote Zaingo onetako Irin, Gari eta Jaki Zuzendaritza Nagusiari, aurerantzean ezaŕiko dituzten otordu saneuŕiak, baleztuak izan ditezen. Gañera, eguneko jaki edo azpila eta baŕztutako saneuŕiak agirian euki bearko dituzte.

4'gn. atala. Jatetxe oietako nagusiak, Mialariei ateak zabaldu bezaizkiote. Eta eginkizunak betetzen lagunda. Orobat, jatetxean arkitzen diran jaleak.

5'gn. atala. Agindu au Euzkadi'ko Jaurlaritza'ren agintepean dauden mueta eta izen guzitako jatetxeei dagokie.

6'gn. atala. Ausleak, lenengo aldiz, beŕaunda berogeitaamar laurleko ordaindu bearko dituzte diru-nekez; bigaŕenez, bosteun laurleko; eta irugaŕenez, mila laurleko. Jatetxea zeaŕi itxi-erazteraño igo diteke nekea.

Gintza'ko arduradun jaunak agindu auxe emon dau:

Lendakaritzan

Guda-oŕetan

Eguerdian Basaldua jaunagaz egon giñanean ezeukan oraindik guda-oŕetako izpaŕ berezirik.

Lendakaŕi jauna ikusten

Euzko Langile Alkartasuna'ren ordezkariak lendakari jaunagaz jardunaldi bat izan eben.

An izan zan baita Azkaraie'taŕ Gumertsinda koroneia.

Derio'n

Basaldua jaunak esan euskunez Derio'n izan zan goizian lendakari jaunaren ordez aŕañegungo zoritxarean il ziranen obiratzean.

Au izan ziran baita Monzon, Astigaŕabia, Rezola eta Aŕegi jaunak.

Alderdirik geyenak euren ordezkariak bialdu ebezan.

Luŕa emotian Euzkadi'ko komunista alderdiko idazkaŕi nagusiak, emakume eta Astigaŕabia eta Monzon jaunak itz egin eben.

Azkenengo onek, beti egiten daben lez, euzkeraz egin eban.

Dunbotsak be egin ziran jaya astunduteko.

Basaldua jaunak esan euskunez jai iŕun eta samintsua izan zan.

Osasun-zaingoa

Labra jaunarekin izketan

"Juventudes Unificadas,,'etako batzaŕkidean gauŕ goizeko ilobiratzera ezin joan izateaz tamal aundia izan det esan zigun lenen-lenengo Labra jaunak.

Ni-neu lanperatuta egon naizelako, Aretxaga jauna bialdu det neure ta Zaingoaren ordez.

Elexabeŕi'ko Eritegia amaitzeko dagola gaiñeratu zigun Labra jaunak. Beriro ere auxe esan-beaŕa dizutet—jaŕaitu zuan—: al diranik egokitasun guztiaz amaitzea naj degulako da atzeratze ori. Oŕetaz gaiñera, bulaŕetiko gaixoentzat, beste etxe baten bila gabiltz. Gaitza da guk nai bezin aguro bilatzea, leku berezia beaŕ da ortarako-ta. Baiña, geure asmo ori egi buruzko etengabeko lanean diardugu.

"Habana" itxasontzia ere Eritegi egingo dutela, esan zigun Osasun-Zaingo'ko Idazkari Nagusiak. Oraingoz—jaŕaitu zuan—ez degu gaixorik eramango eritegiortara, baiña, gerorako gertu eukiko degu. Itxas-ontzi ontan osakai ta ostontzeko beaŕ diran guztiak jaŕiko ditugu.

Laureun-bosteunen bat oge sartzeko asmotan gera.

Osakaitegiak arakatzeari ekingo ziotela jakin-erazo zigun. Geiegikerizko saneuŕien aztarua ote duan edo...

Geroxeago auxe eman zigun argitaratzeko:

"Osakilariai"

Jendearen beaŕa ornitzeko, lengoa guztia eralgita ez dutelako edo, oskai beŕirik egin duten osakilari guztiak, lenbailen, zenbat osakai beŕi eta zein gaikin egin dituzten ziatz-ziatz agertuaz, agiria bialdu bearko dute Zaingo ontara.

Agiri ori bialtzeko azken-eguna ila ontako 25'gna. izango da. Egun ortarako bialtzen ez duanak, oŕelakoetan ezaŕi oi dan zigoŕa izango dute.

Bilbao'n, 1937'gnko. etsaila'ko 18' gnez.—Osasun-Zaingo'ko idazkari nagusia.

Gizarte-Laguntza

Gracia jauna geroago ta osasuntsuago

Osatebakuntza ondoren, Gizarte-Laguntza'ko Arduradun Gracia jauna geroago ta osasuntsuago dago.

Emakuntzak

Zaingo ontan atzo, otsaila'ko 18' gnez., emakuntza onetxek jaso zituzten:

Bazkin'daŕ Jakinda'k (Bilbotaŕa), 300j Uŕutia'taŕ Paul'ek (Aŕasate), 28; "Habana" itxasontziko mutilak (Bilbao), 1.000; Orbegozo'taŕ Pirmin'ek, (Bilbao), 10; Kausi'taŕ Teodoŕ'ek, 125; La Razon gozokilari-batzak, U. G. T., Euzko-Langile-Batza'k, 1.037; "Mexiko" gudaloroak (Bilbao), 499; "Tebis" Jolastzaile-Bat a'k (antzerki batekoa), 43,30.

Danetara jasotakoa: 2.943,30 laurleko.

Gintza zaingoa

AGINDUA

Igazko Azaroaren 27'gaŕenez (30' gaŕeneko Agintaritzaren Egunerokoan) Zaingo onek eman zuan Aginduak. Euzkadi'ko Lan ikuslarien eskubideak azi egin zituan. Ona erabakia itzez itz: Lan-Ikuslarien eskubideei beingoz auxe eransten zaie: gintza, saleroste eta abar Bazkunetako lansari leŕokadak ikustatu bitzate, es izendian. Erkalari leial etzaiolako, espetxeratuta dagolako, edo aberiz kanpo dalako laneratzen ez dan iñoŕ orkitzen ote dan.

Erabaki ori artzera, bidegabekeriak somatu izanak eragin zigun Gintzarentzat lez Euzkadi'rentzat ere kaltegaŕiak bai ziran. Ortaz, oŕaztu beaŕekoak.

Lendik somatuak zeuden zenbait eŕu egiztatuak izan diralarik, aurerantzean sortu ditezkenak zoŕotz dabekatu beaŕean gera. Auxe dala-ta, Agíndu au emaŕen det:

1'go. atala. Erabaki onen eguna ezkeroztik, Euzkadi'ko saleroste, gintza edo abar Bazkunek, ezin matxinada dala bide espetxean arkitzen dan langile edo lanari bateri ere lan-saririk ordaindu dezaiokete. Ezta matxinada dala ta abeŕiz kanpo edo aztaŕenik gabe arkitzen diranei ere.

Galerazpen onen mende arkitzen dira langileak lez, lanari, trebe eta zuzendari diranak.

2'gn. atala. Agindu onen ausleak gogoŕ zigortuak izango dira.

Zuzentza ta Gogo-Lantze-Zaigoan

AGINDUA

Euzko Irakastola Nagusia sortu-erazi zuan Oroaginduak opa dizkidan eskubideak erabiliaz, eta Osakintza Ikastolako Irakasledia aurkezle dedala, auxe agintzen det:

Orain arte Vailadolid'ko Irakastola Nagusiari erantsita jardun izan dan Bilbao'ko Gaxotegiko Gaixozañen Ikastola, igaro bedi oso-osorik Bilbao'ko Osakintza Ikastolapera, Osakintzaren laguntzale bat bezela.

Gaxozaintzarako ikastaroak, bein -beingoz, bi izan bitez: bat, mueta guzietaŕako gai dan Gaxozaiñari dagokiona; bestea beŕiz, Gizarte-laguntzari buruzko Gaxozain bereziari dagokiona.

Bilbao, 1937'gn. otsailak 18.

Au, ori ta bestea

Ingelesak gasen aurka gertuten

Ogetamar milloe gasen aurkako arpegi-zorro gertuten diardue.-Atenas'ko batzarra.-"Peugeot" belbil-olako langilleak oporrean Sochaux'en.-Belgikarrak Inglaterra eta Frantze'ri begira.

Erri gustiak Inglaterra'ri burdiña eta galtzairu eske izkilluak egiteko

GIZARTE DEMOKRAZIRI IRITZIKA

Londres.—Gizarte-demokraziari buruzko iritzia azaldu du Baldwin batzafeko lenda kariak.

Bere iritziz, gizarte azkazale gobernuak ez dio efizale alderdi bati baiño begiratu beaf.

Bere eburua lortzeko ez ei dio txindarazoaren sendoak bateze ardurarik. Diru-arazoa ez dala beaf-beafezko.

GAS'EN AURKAKO AURPEGI ZOŔOAK

Londres.—Perkins egazkinlari koronelak esan duanez, Inglatefa'n banatuko diran gas'en aurkako aurpegi-zoŕoak, datoŕela datoŕen gas-mueta, ez daukate ardurarik. Ogeitamaf miloi aurpegi-zoŕo oietako gertutzen diardutela gaiñeratu zuan.

BURDIÑA ESKE DANAK

Londres.—Europa guztiak guda gaiknai dituala ta, Inglatefari burdiña ta galtzairu eske dagokiote alde guztietatik.

Orain, baiña, Inglatefa'n burdiña ondaf ez ere ufi dabiltz.

GUDATEAN ILDAKOEN GOGO ALDEZ

Berlin.—Berlin'en dagon efumaniaf ministrua Comnen'daf Nikola Atzefi Arazo etako ministrua ikertzen izan da, Españaf latefiko gudaten il diran "Guardia de Hierro"koen gogo-aldez ospetuko dan eleizkizunera etoŕtzeko gogo aundia dutela atzefitaf diplomatikuak, agertu zion Comnen jaunari.

BATZUK POTO TA BESTETZUK AURERA

Paris.—Yapy ta Doret prantzetaf egazkinlariak Paris'etik Tokio'ra joateko asmotan ziran, baiña, asmoak Curjota geldi tu dira.

Orain Denis eta Libert prantzetaf egazkinlariak jaso dute ibilera orixe bera burutzeko asmoa. Larunbat gabaz ateratze kotan dira, Yapy ta Doret'ek erama-zuten egazkiñaren antze antzeko baten.

BATETIK BESTERA ALDATZEAGAITIK

Paris.—Langile bat ola batetik beste batera aldatu dutela ta, Sochaux'en "Peugeot" belbil olako langile guztiak opoŕ egin dute.

BELGIKAŔAK INGLATEŔA TA FRANTZE'RI BEGIRA

Bruselas.—Alderdia sakabanatu dituzten ezberditasunak aztertu beaf dituan sozialista Batza Nagusiak astelenarfte atzera tu du batzafa, Jauniaux batzafkid buruak baiña argi ta garbi azaldu du bere iritzia. Belgikaf sozialisten asmoak agertu zituan eta Gobernuen lanaj utzi zioten Vander belde'ko taldearen ordez, Van Zeeland izentatu beaf zala esan zuan. Diru-arazoa garbitu danean ez dala beste iñoren esku laga beaf alegia.

Atzefietako efiketa edo politikari buruz, batere ait akirik gabe, belgikaf sozialistak ingalan-pr ntzetaf efiketari dagokiotela azaldu, zuan Jauniaux jaunak.

ATENAS'KO BATZAŔARI BURUZ

Belgrado. — Balkanetako arazoa aztertzeko Atenas'en Betiko Batzak egingo duan batzafari lotu dira Belgrado'ko izpafingiak "Vreme" agintarien izpafingiak dionez, Stoyadinobich'ek lortu al izango zuan Bulgaria ta Yugoeslabia'ren afteko batasuna eta ortarako beste latefiak bideratutako ostopoak ere bai gaindu

Koloniak dirala-ta

Gobernuaren areriuak asarre

Inglaterra'tik yatorkuzan izparrak

Londres.—Bere mende dagozan lufaldeei buruz Gobernuak dauazan politika-asmoak txaftxat etsi dabez Gobernu-alde ez diranak.

Efegearen burezkundea dala-ta lufalde ofeitako ordezkariekin batzafak egingo dira aurten.

Lufalde ofeik euren asmo ta gurariak ordezkari ofetxen - bidez azaldu daikez ta eurai deritxoenez azaldu, be, iñof tafteko egiteko.

Aldundi'ko Gobernu-areriuak lufalde ofein zainketarako beaf diran dirutzak dirala-ta Gobernua'ri, egin dautsezan galderei auxe erantzun dautse Gobernua'k: geuk beaf doguzan lan-gaiak lufalde ofeitxetatik ekaften doguz ta lufalde ta koloni ofei ordaindu egin beaf dautsoegu erabatera edo bestera.

Ingalatefa'kin alkaftuta egotetik zefien on aundiak yuakuezan ba-dazaue koloni ofeik eta euren buruak aldezteko euron kontura gertakizunak egiten diñardue.

Europa'ko bakea zaintzeko ta Latefi-Batza'ren aginpidea geitzeko ba-daki Gobernuak aftuemonai eustea ta alkaftasuna aldeztea beafeko dana.

Politika-jrakitea baretu ta diru autuetan alkafori laguntzeko gertu gagoz gu.

Andik eta emendik

Haile Salessie, Abisinia'ko jaunzana, Txekoeslobakia'ra juateko da an biziteko asmotan.-Errusitarrak liñu ugari dabe.-Hitler'entzako soñekoa.-Caines Milanes Cuba'ko lendakari gai.-Frantze'n saneurri jasotzearen aurka.

GORAGO ORAINDIK ERE

Ginebra. — Karl Buckardt, suizafa, "C. R. I." batzofdekokidea, Dantzig'en dagon Alkaftasuneko burukide zentatu dute iru urterako. Vladimir Sokoline Paris'en dagon efusiaf Embajada'ko Burua, Alkaftasuneko idazki-ordenagusi.

TXEKOESLOBAKIA'N BIZITZEKO ASMOTAN

Praga.—Haile Salessie, Etiopia'ko enperadore izandakoa, Txekoeslobakia'n bizitzeko asmotan da. Bere zaifiak "Modry Kamen" etxerako bidea aftu du. Etxe au salgai dago eta Pressburg'ko afkitetu batek Salessie'ri eskeifi dio.

LIÑUA ERBESTERATZEKO

Moscu.—Datoŕen urtetan liño geiago erbesteratzeko, alegiñak-alegin djafdute. Agintariak emandako zenbakuntzak dionez, 3.700.000.000 luf-zatitan ereintzen dute liñua. Gutxienez ori.

EGIPTO'K ERE TAŔTEKO IZAN NAI

Londres.—Egipto'k, bera ere batzafkide izateko, Latefi-Batzafi eskakizuna bialdu dio. Inglatefa'ko Gobernua'k onirtzi jaso du eskakizuna ta, erabakitzeko, Latefi-Batzak batzaf berezi bat egingo duan ustea dago. Loreil-azkenaldean egitea balitzake.

FUHRER'ENTZAKO SOIŃEKOA

Tokio.—Sehjehibou taldeko iruleak soiñeko edefenetako bat eman diote alemaniaf embajadoriari fuhrer'entzat. Ufe-ariz egindako kurutza bat eta guda-izkiluak ditu soiñekoak.

Noeber embajadoriak bere eskuz jaso zuan soiñeko ta fuhrer'en izenez eskefik sutsuenaz ordaindu.

PAXISTEN LANAK, PERPIŃAN'EN

Perpignan.—Frantze'tik España'rako burnibidearen subia noiz jauziko dago paxistak bonbaz jo ostean. Gauf goizean jardun dabe suaga jaurtika egazkin paxistok.

Joan-etoŕiak geldi lotu beafa izan dabe; andik lastefera, ofaitiño, transbordoz asi da ibilpidea.

CAINES MILANES, CUBA'N, LENDAKARI-GAI

Habana.—Luis Caines Milanes, senadorea, lendakari-gei atarako dabela liberal alderdiak diñoe. Ufengo autes-kundeak mayatzean izango dira.

Machado jauna lendakari urten zanean, 1925'gn. alderdi ofexek lagunduta urten omen zan.

Izpaf orj, ordea, ez dabe afezkero egiztau.

SANEURI-JASOTZEAREN AURKA

Paris.—Janarien saneuriak ez jasotzetzeko legea edatzeko asmo aztertzen djardu Gobernuak.

1930'gnko. garila'ko lenengoz izentatutako saneuriak ezafiko ditu orain ere Gobernuak.

Negarra

Ugarte'taf Libe'ri, adiskidetasun sendagaritzat.

Negafa datof
Luf itxaso eta, aizez,
Of-emendik urtendako
Bafe-kafkaxa nasai batzukin
Kafkaxa batzukin nastauta
Aundiagotzeko ludia
Etengabeko itunez.
Eta, aizeak austuta
(Ofi zimel antzo)
Ames-itxaropenak duaz iges...
Oi, ludi, ludi:
¿Noiz asetuko aiz
Negaf-izarditz beteriko
Iturfiaren ur mingotsez?
Egalak ilun
Aulduta dagoz, itzalez yantziriko
Irudi argalez.
Eta, itzala da nagusi
Itzala nagusi
Eta, besterik ez!

Muniategi'taf Sabin.

Españar gudako izparrak-eta

Virgen de la Cabeza diritxoen Ama Neskutzaren baselizan dagozanak jatekorik nondik eroan ez, egazkiñen bidez izan ezik.-La Robla erri gañeak errepublikarren mende.-Guda-oñetako izparrak.

Morata de Tajuña.—Efkaldafen mende dogu efian ta suagatu suagatu egin dabe ta efitafak efitik urteterik ez dabe nai.

Areriuen ostikadakafen efi-aldezliak auera duaz.

ARAGON'GO GUDA-OIŃETAN

Sastago.—Durruti saileko guda-izpafa auxe dogu:

"Gauf zortziretan 500 edo 600 paxista-gudari Laserna'n bera Almonacid de la Cuba'runtz etofi yakuz. Uste danez bastafak ikustera. Efkaldafen suagalari, pusil ta suizkilubizkofak bide lastef ipiñi ebezan atzera atzeraka paxistok.

Aurerarik egin ein ebenean lagun bafiak etofi yakuezan paxistoi ta ordu bi ta erdiak afte dunbadaka jafaitu eben eta orduantxe biurtu ziran euren guda lubanetara.

Befogei izan zauritu ta iletan; ildako batzuk jasoteko laga dabez. Ugelak eta galtzaiduzko buru estalgafi asko aftu yakuezan; tresna ofeik italiafak ziran.

Guk ostera ilak bi ta zaurituak beste bi izan doguz. Monte Calvario'n eta Belchite sorkaldean eukazan suagalariak lastef ixildu ebezan gureak.

Gure 7,5'ko kañoiak eun dunbada bota euzan eta 10,5'koak befogetamaf inguru. Joaldioi amaitu ondoren ikusi genduan aruntz onutzak darakusgunez kalte aundiak egin geuntsezan areriuei.

Azuara, Azaila ta Sastago'n lengo senean."

VIRGEN DE LA CABEZA'N ESIBAŔUAN DAGOZANAK

Andujar.—Bederatzi iru motofeko paxisten egazkiñek Virgen de la Cabeza'n esituta dagozanei janariak bota dautsoez.

PAXISTEN IGESI

Gijon.—Atzo gau-beranduan gudari bat eta gauf goizean beste bat etofi yakuz paxistei iges eginda, guda izkilu ta guzti.

Paxistak kikilduaz duazala, gudariak txafto aftzen dabezala ta janariz ufi da biltzala esan dabe.

POLA DE GORDON'GO GUDA OIŃETAN EŔI ALDEZLIAK ASI DA BEN JOALDIA

Gijon.—Gauf goizaldean Pola de Gordon'go guda oiñetan efi aldezliak eraso bizi-bizia asi dabe.

Agintarien oiua entzuteko ifikatzen egozan efi aldezliak agintarien esanak oso osorik beteaz Leon probintzian dagozan Peñacastillo'ko guda lubanak menderatzeko asmoz aurerantz asi ziran.

Paxistak ustekabean aftu euzan eraso ofek eta egiri-alak egin ebezan joaldiofi eusteko; efi-aldezliak guda izkilu bafiz ondo orniduta adorez ekin eutsen eta burdin-euriztan ezin egonik atzera-atzeraka asi ziran eta ilak eta guda-gaiak bertan-bera laga ebezan.

Aurerakadeoi agintarien esanez egin zan eta bizkof egin be.

Guda-laban ofek gudarako balio aundia dabe. Efi-aldezliak aftu dabezan toki ofeitatik La Robla efia, paxistak gudari-onafi ebena mende aftzen dabe.

Gorpu, pusil, munizio-kaja, Laffite suaga, ta beste guda-tresna asko aftu dabez efi-aldezliak.

Eguerdian aurerakadeoi ondo uan; atzera egin ebenafen, galdu ebezan tokiok bafiro aftzea bururatu yakoen eta eurak asi eben eraso bafia, baiña alpefikoak izan ziran aren asmoak, eta oindiño atzerago egin beafa izan eben.

"Kiskitza'ren" aldez

"Kiskitza"ren (G. B.) idazlanak argitaratzeko, Donosti-Buru Batzaf, asmoa beterik, zabaldu ta dagon arpidearen jafaipena:

Oraindañokoa	320	laurleko
Arizmendi'taf Nemesi	5	„
Ufetabizkaya'taf Pantzeska	5	„
Irizaf'taf Sabin...	5	„
Irizaf'taf Miren Gurutze ...	5	„
Irizaf'taf Iñaki	5	„
Afieta'taf Gabirel	5	„
Tejada eta Sarabia'taf Sandali	10	„
Bilbao'ko Emakume Abeftzale-Batza	100	„
Albizuri'taf Perderika	10	„
Olasagasti'taf Jon	10	„
Arzeluz'taf Ander	10	„
Anabitarte'taf Mikel	10	„
Alberdi eta Afegi'taf Artolin	5	„
Zabala'taf Perderika	25	„
Guztira	530	laurleko

⁂

Oraindañokoa	530
Peŕando'taf Sese	10
"Kizkitza" zale bat	5
Afue'taf Joseba (Aba)	5
Muxika'taf Jabier	5
Efenderiaf bat	5
Zubizafeta'taf Joseba	5
Olabeaga'taf Pantzeska	10
Olabeaga'taf Itziar	5
Olabeaga'taf Joseba Imanol	5
Olabeaga'taf Iñaki	5
Olabeaga'taf M. Arantzazu...	5
Olabeaga'taf Miren Begoña	5
Oraindaño laufleko...	600

Donosti-Buru-Batzaf.

EMAKUME ABEŔTZALE-BATZA

Bilbao'ko Emakume Abeftzale-Batza'k, datoŕen iganderako, antzefki-jai polit bat iragaften dau.

Eta jai au ospatuko dan antzokija, Nikola Deuna'rena ixango da, Esperantza-txaidian daguana.

⁂

Antzezkixunen egitaraba be iragafi dabe, ta polit-pilfa da. Ona emen:

1'go. "Miss Mox Xapi". Euzkerazkua da, ta bafe-eragilia. Gipuzkoa'ko antzeflari-taldiak antzeztuko dau, ta ekifaldi batekua ixango da.

2'gfn. Varela'ren euzko-ipuñak.

3'gfn. "Urte Ufena". Arotzena'rena da ta Ilafamendi andereñuak esango dau.

4'gfn. Ekilaldi bateko idantzezki abeŕkoyaren adelu edo estrenoa. Lau eleski ixango dauz, eta "Abeŕi" ixenaz ezagutuko da. Kanpion'daf Artur'an "Poema," tik gaya aftuta idatzija da.

5'gfn. Jayaren amaya.

⁂

Bilbao'ko Emakume Abeftzale-Batza'ko emakume zufak, egitarau polita be polita iragafi dauskube.

Eta antzezkixunotara notin asko elduko dirala uste dogu.

Antzokiratu gura dabenak, baña, safera-ingitxuba biaf ixango dabe. Eta ori eskuratu gura dabenak, Emakume Abeftzale-Batza'n, Kofeo txaideko 14-2'gafen etxoñera eldu biafko dira, ta gauf afatsaldian eldu be.

⁂

Abeftzaletasuna erefeko ereintzalerik onena, antzokija da ixan be. Eta Bilbao'ko Emakume Abeftzale-Batza'k, erein eta edatu gura dabien abeftzaletasuna erefeko, antzokija autetsi dabe.

⁂

Antzokija, baña, luŕa baño ez da, lugiñak azja erefeko gertauriko solua baño ez. Beraz abeftzale-azija erefen ba-da, ereiliak abeftzale-uzta aftuko dau. Abeftzale-azijaren ordez beste aziren bat ereingo ba'litz be, baña, ereindako azijaren endakua ixango da aregandik luf-ganeratuko dan uzta be.

Uzta ona ta onurakofa aftu gura dauenak, azi ona erefen alegindu biaf da: uztarik onurakofenak emongo dauzan azi abeŕkoya.

"GUDA-GEXO-ZAINTZA EUZKADI'N"

Ixenpurutzat idatzi dogun ori, Euzkadi'ko Jaurlaritza'k egun gitxi baŕu argifalduko daben idazti barijaren ixena da.

Idazti ori edeŕ-edefa ixango dala diñue 300 argazki baño geyago argifalduko dabezala, ta guda au asi zanetik onuntz Euzkadi'ko Gexo-Etxietan ezagutu ixan diran gexo-mueta gustijen edestija ekafiko dabela.

Idazti edefa benetan. Olako idazti baten biafa bai-geban. Ainbat lastefen argifalduko al dabe.

JAUPA ABESTUA

Datoŕen igandian, goxeko amafetan, Begoña'ko Miren Deuna'ren eftxadonan jaupa abestuba ixango da.

Jaupa au, "Euzko-Pizkundia" ta "Tipográfica General" bazkunako batzordiak eraldu ixan dabe, bazkun onefako ixenpedun urte askotan ixan zan Arantzadi'taf Ingartzi zanaren gogo-aldez eskintzeko.

Euzko-Abesbatza ta Euzko-Gastedi'ko abeslarijak abestuko dabe.

Ikusten danentz, ba, eleizkixun edefa ixango da. Eta bertaratuko dan gixoztia, ugari-ugarija.

ITALIA-ALEMANIA'REN ASMUAK

Italiafak eta doistafak España'ko gudalburu asaldarijei lagunduten etoŕzala-ta España'ratu ixan ziranian, gudalburubai lagunduten bakafik barik, zeozer geitxubago egiten etofi zirala diñoskube: Almaden'go miatzakaz eta Sevilla'ko gaimelufakaz jabetuten.

Doistafen egafirik-egarijena, Almaden'go merkurio-miatzakaz jabetutia ei-da, ba. Eta Mussolini'rena, ostera, Sevilla'ko gaimelufakaz jabetutia.

Alemania'k merkurioa biaf ei-dau. Merkurio-miatzak eta beste gauza asko be bai. Eta espafiar gudalburu etoyai egiten dautsen laguntasuna, ofetarakoxe ei-da.

Italia'k, bafiz, gaimela gura ei-du. Mussolini'ren ames gustija, ludi gustiko gaimel-azoka Italia egitia ei-da, ba.

Lan dagijan langiliak, lan-ordaña beria dau ixan be. Beraz, gudalburu asaldarijak gurendari urtengo ba-lira, urten, españafak eta euren aftian paxiotafak be, gaimel barik gertuko litzakez. Gaimel barik, eta merkurio-miatz barik.

Langiliari beria ordaindu egin biaf yako, ba.

Eta gudalburu-asaldarijak ekafi ixan daben guda oneri lagundu ixan dautsenak, doistafak eta italiafak dira. Apirka'ko mairubak be lagundu ixan dautse, ta lagunduten dautse. Baña ofei ostikuaren erpiñaz ordainduten yake...

Emakume Abertzale Batza

ANTZEZKIZUNA BIYAR

Biyar, afatsaldeko 6'etan, Nikola Deuna'ko antzoki aretoan, antzezkizun atsegiña izango da:

1. "Mox, Miss, Xapi", ifi-antzerkia, ekitaldi baten, euzkeraz, gipuzkoaf taldeak.
2. Euzko-ipuñak, Varela'k esanda.
3. "Urteufena", Arozena'rena, Ilafamendi andereñoak.
4. "Abefi", irudi abeŕkoya, ekitaldi bat eta lau agefalditan, Kanpion'en edeskiko mamiaz antolatua.
5. Jai-amayera.

Jai-dei txarteltxoak gure Batza'n, Cofeo 14, 2'gn. aftu leitekez, gauf afatsaldetik.

Paxistak dirala-ta

Erregia, Tatarescu eta paxisten ordezkariak

Rumania'tik yatorkuzan izparrak.

RUMANIA'N PAXISTAK AURETIK DARABILEZ

Bucarest.—Rumaniaf Gobernuaren eta Portugal, Alemani, Japon eta Itali'ren ordezkariari aftean jazo daua zabal da baztefetan, eta nazitafen aftean urduritasun eta kezka ederik sortu-azi dau Alabaña, germandafok jasoera ofek gafantzirik ez dauala adirazi dautse efjari.

Wilhelm Fabricias, ministro aleman, ta Hugo di Sola, italiafa, euren efietara joango dirana, ziurtzat etsi dabe, ordea.

Tatarescu, Gobernu buruaren jokaera sendoa aldatu, eta azalpen bafi bigunagoak egingo dituala esan dabe alemandafak, bañan oraifte, lengoan dago Tatarescu.

Ofez ganera, lege-etxe bietan onjritzi dabe bere jokaera, eta orobat politika alderdiak. Beraz, len baño sendoago orain aren jokabidea.

Senaduan, ordezkari arein alde egin guraz, paxista bik itzegin dabe. Politika egitada ez zala izan ordezkari atzefitaf areua sakatu nai izan dautse beste aldunai; uskurtza eleizkizunera joan baño ez ei eben egin.

Azalpen ofek, ordea, ez ditue ointzat aftu. Ordezkari areik egiña, Estadu adizkide bateko matxiñada-zale bidebakoei lagun egitea zala, etsi dabe legetxean.

Ez ori bakafik. Ordezkarien jokaerak, zalaparta-bideak ontzat aftuten dituala adirazi nai dabe.

Nicola Jorga irakasle ospatsu eta paxista-zaleak be, bere asmo ta eritzia agertu ditu auzi ontan. Rumania'n, oraintsu, legetxea iztu eta paxista jaurkerea ezafteko molkua efegearj emon eutsan irakasle ofek, oneja itzegin dau. Españaf paxistazale dala bera, bañan, Rumani Estadua, neutral danez, italiaf eta aleman ordezkarien jokaereak Estadua. Kalte ta aufka egin dautsela euren egitada ofegaz.

AZKENENGO IZPARRAK

Bere mugak ingelesak zaindutekotan, Portugal'ek kontrola oniritziko ei dau

Paxistak Galicia'n egin dituezanak.-Umiei militar ibilkerak eragiten.-Argentina'n, España'ko eta Euzkadi'ko izparrak jakiteko zaletasun bizia dago. Italia gertu ei dago mugak itxiteko.-Azken sei illabetean España'ratutakoak aterazi.-Alemania'k aspaldion galdutako egazkiñak.

AÑAPALADAKA ATZERANTZ

Sastago.—Almonacid de la Cuba'ra joiazan 500 lagun inguruko aldra bat ikusi zan La Serna aldatzetik berantzako bidean. Onek auŕerakuntza bat egiteko edo ikuskixunak egiten jatzi ziranak dira. Eŕi aldezlien taldiak berialaxe asi jakezan suagaka safatu ala be. Taldia geldirik geratu ziran, eta arizkuaren aundia ikusirik, laguntasuna eskatzen lotu ziran. Oneri laguntasuna etoŕi jaken, eta ainbat orduko sunbaketia sortu zan, baña arerijuak gero ta gero be ixildu biaŕa ixan eban. Arerijuak ikusitako 40 betuta inguru ixan ebazan, eta luŕaren ganian ainbat ildako itxi, arerijuak bertan bera itxi ebazan luŕaldietara erdu ziran eŕi aldezliak eta emen italiaŕ ixeneko ainbat ugel, eta buruko burdin kapela aurkitu.

Eŕi-aldezlietakotatik bi il zituzten.

LOTSAŔEN

Londres.—Izpaŕingijak, jaurletxian aldunak baŕiz eŕija izkilu biaŕez ipinteko artu dabezan erabagijatzaz mintzatuten dira. "The Times" izpaŕingijak diñoenez, Ingalanda'ko Leoia gertuta dago itxaŕik danari lotsia gorde eragiteko. Eŕi bat izkiluakaz egin aŕen, eztala buŕukia gura dabelako. lotzia gordetia danari eskatzeko baño. "Daily Herald" langile izpaŕingijak diño, bakia aldeztuteko eŕijak, gudarako gertauten dirala osuan. Baña onetako bakian bayeskuntza ezkatu biaŕ dala lateŕi gustijai osuan, danan artian eŕijen laguntasuna agirita bakotza bere eskubidiak gortzeko.

"New Chronicle" izpaŕingijak, eŕijak izkiluakaz betetiatza diño, danen ganetik bakiatzazko lanak egin biaŕ dirala, eta orain ardura dana auxe aldeztu. Bakia danon aldetik eta danontzat.

PAXISTEN EGITADAK GALICIA'N

Habana. — "La Información" deritxan Izpaŕingijak, Coruña'tik etoŕitako langile tek egin dabezan azalpen gaŕantzi aundikuak azalduten dauz. Coruña'tik etoŕitako langile au Santiago de Cuba'ra eldu da.koak erantzun zigutena erantzun ziguten.

bere sendija uri onetan bixi dalako eta Coruña'tik iges egin da etoŕi be.

Galicia'n milekaz langile dagoz azpertuta militaŕan aberekerijekaz, eta izkiluak balebez, militaŕan auŕka berialaxe jaŕiko litzakezala. Danak itxaroten ei-dabe. Erkalan auŕerakuntza, eurak guda-oin atzetik laguntasuna opalduteko, eta era onetara Galicia'n azkatasuna lortuteko.

Otrain, ostera, ezin leikela ezeŕtxube egin, Galicia beste luŕalde asko lez, militaŕan aberekeri eta gogoŕtasunan baŕuan dago-ta. Guda asikeran ainbat eta ainbat eraildu ebezan, azkatzale lez agiri zirala-ko beste ziyu barik.

Umian aŕterako eldu ei-da militaŕan gogoŕtasuna, oneri izkiluak erabilten eta guda-gaiizatan irakasten ei-dautse, eta gogoŕin erakutzi-be.

Umiak-gandik soŕtutako gudaloruak ei -dabez, eta Mussolini'k Italia'n umiari irakasten ixan eutsan antzera, onen eredua aŕtunda irakasten ei-dautse.

Erkalan taldiak Galicia'rantza auŕerakadan duazanian, Galicia'ko langile gustiak jasoko ei-dira gizon bat bezela.

AMAIKATXU BIALDU DABE!

Valencia. — "L'Humanite" izpaŕingiko izpaŕkarijak, Maŕuekos luŕaldeko ibilera izpaŕ-batzeko bat egin dau.

Eta bere izpaŕingira izpaŕ jakingari askotxu bialdu dauz. España'ko Maŕuekos luŕaldian jabetasun gustija, Alemania'ren eskuetan dagola diño. Ceuta, Larache eta Melilla'n egazkin -zelai aundijak egin ei-dira. Batak Tahuima eta Nador'en-be, egazkin -zelaiok egiten ei-diñardue. Onek egazkiñak, 150 egazkin Alemania'tik banaka etoŕitakuak, bein osotuta urte ei-ziran España alderantz. Urtiaren amayan eta ile aretako 8'gaŕenian "Capri" ixeneko itxas-ontzijak Sevilla'ratu ei-ebezan, ainbat egazkin jalitan. Ontzi au bere bidian Alemania'ko "Graff-Spaa" ixeneko guda-ontzijak gordeta zijoan. Sevilla'n alemaniaŕ gudarijak galazoten ei-eben, ontzi aretako sartu-urten osua. Egun ber-beratan sartu zan, "Silenti" ixeneko beste itxas-ontzi bat. Ontzi au Melilla'n sartu zan, eta edozetariko guda-tramankuluak ei-eruazan. Puebla del Caramiñal eta Ferrol'en be, ainbat guda-berun eta abaŕ eŕiratu dira.

Urtaŕila'n 13'an. sartu ziran Melila'ko portuan itzas ur-aspiko edo sumariño bi, egun ber-beratan eŕiratu ei -ziran Larache'n 2.000 izkiluazkaŕ. Onek kutxa baten eldu ei-ziran, eta ozkin edo zapata kutzan eldu be "Calzados Segaŕa" ixenaz. Otsaila'ko 8' gaŕenian baŕiz "Capri" ixeneko itxas -ontzija sartu zan Melilla'ra sei itxas -egazkin edo idroavioekaz, onek zatika ekaŕi zituan, baña berialaxe konpondu edo osotu ebezan, eta lasteŕ urten ziran itxasorantz.

PORTUGAL'EK BAIETZ

Londres. — Izpaŕ ziurtzakuak diñoenez "Ezetan ez sartzeko" Portugal'ek daben ordezkarijak artun ditu bere Goberna'k emondako aginduak, erabagijak ontzat artzeko ixan dayen bere egiñetan, baña oŕetarako, ingeles agintari edo oficial ixan datezala, Portugal'eko luŕaldian kontrola gorde biar dabenak.

Gauŕ arte, gudari gogozkuak bialtzeko galazotia erabagi daben lateŕijak, Inglateŕa, Frantzia, Alemania, Irlanda, Canada, Belgika eta Rusia dira. Eŕoma'k agindu dau, gertuta daukazala, era oŕeri juakozan agirijak eta bijaŕtik sartungo dirala egiñetan.

Gero baŕiz gogozkuen kontrola ezaŕi ezkero eta oneri juakazan lanak amaŕuta batera. Londres'ko Komitia bere asterkelak egiten asiko da, artu dabezan agiri batzuk eta artuteko dabezanak. España'tik urteteko atzeŕitaŕari juakazanak atan-be. Onek atzeŕitaŕak igarotako azkenengo sei dabete onetan España'ra sartu diranari juake. Eragospen askotxu ixango daben aŕen, aldanik zigurén eruateko ustia dabe.

PORTUGAL'ERI JARAMON BAGE

Paris.—"L'Humanite" izpaŕingijak diñoenez, eldu da orduba ekintza biaŕekuak aurera eruateko. Ezin itxi leikezela atxakiz eta aiko-maikotako egikixunak. Portugal'ek espa-dau aldatuten bere eretxija datoŕen ilaren 6'gaŕenerako, Francia'k jauŕti egingo dabela, bete-betian, bere mugari juakan kontrol lagia, azalduten dau.

NAZITAŔEN ZERUA

Londres — Hamburgo eta Inglateŕa'ko ibileria ontzi baten egiten daben itxastaŕ bat zigoŕtu egin ei-dabe Alemania'ko agintarijak, "Daily Herald" izpaŕingija irakuŕten dabela-ta.

Izpaŕingi arek Alemania eta Italia España'ko gora-beratan sartziatzaz gogoŕ ekiten ixan ei-dau. Orixe ixan da itxastaŕ langilea zigortuteko ziyua.

JAKIN NAIRIK

Buenos Aires. — Jarama'ko guda-oñetan españaŕ Erkala'ren taldiak daben auŕerakada-gudaketia, pozez itxaroten da, Buenos Aires urijan eta Argentina osuan.

Eŕi osua egunaro jaŕita dago iñadotsan abots-geikiñen auŕian. España eta Euzkadi'ko baŕijak jakiteko dagon zaletasuna iñoiz ezagutu ezdalakua ei-da.

"La Nación" izpaŕingijak diñoenez bere izpaŕkarijak ludi gustijan batuten dabela, Lateŕi gustijetan nabaitzen dan egunotako jakin guria guda-izpaŕ uftengafijenak ixan beta.

GUDATEAN ILDAKOEN GOGO ALDEZ

Berlin.—Berlin'en dagon eŕumaniaŕ ministrua Comnen'daŕ Nikola Atzeŕi Arazo eŕako ministrua ikertzen ixan da. Españaŕ lateŕiko gudaten il diran "Guardia de Hierro"koen gogo-aldez ospetuko dan eleizkizunera etoŕtzeko gogo aundia dutela atzeŕitaŕ diplomatikuak, agertu zion Comnen jaunari.

BATZUK POTO TA BESTETZUK AURERA

Paris.—Yapy ta Doret prantzetaŕ egazkinlariak Paris'etik Tokio'ra joateko asmotan ziran, baiña, asmoak Curjota geldi tu dira.

Orain Denis eta Libert prantzetaŕ egazkinlariak jaso dute ibilera orixe bera burutzeko asmoa. Larunbat gabaz ateratze kotan dira. Yapy ta Doret'ek erama zuten egazkiñaren antze-antzeko baten.

BATETIK BESTERA ALDATZEAGAITIK

Paris.—Langile bat ola batetik beste batera aldatu dutela ta, Sochaux'en "Peugeot" belbil olako langile guztiak opoŕ egin dute.

Geiago oraindik

Getaria'tik ogeitalau bialdu.-Odol gorriz iltokia.-Paxistarren zitalkeriak.

Otsailako 13'gaŕenez Lekeitio'ko guda-oin ingurutatik igaro ta ogeitalau lagun etoŕi ziran geure aŕtera. Paxistaŕ betiko ankeŕak Getaria'tik bialdutako emakume ta auŕak ziran.

Lekeitio'ko guda-oin inguruetan, gora ta bera ibili ta une laiak igaro beaŕa izan zuten. Euria etengabean. Geure guda-oiñetara igarotzeko adaŕa jo zuten. Gero xeago... aurera, lanoŕian guztiak. Alako batez, sutunpa. Laŕi-asko, noizbait ere, erdu ziran gure luŕaldera.

Zergatik bialdu dituzten? Beste eŕieta ezkero bana emango diete oroigaŕi.

Getaria'n Manterola'taŕ Eŕamon dago endore.

Getariaŕik ez dute erail. Eŕi-inguruan, baiña, zaspi eŕbesteko erail dituzte: zarauztaŕ bi, oriotaŕ bat eta besteak ez dakigu nongotaŕak.

Geienetan iltokian erailtzen dituzte.

—Zulo-egila, biaŕko onenbeste zulo.

Eta uŕengo egunez eraman eta erail egiten zituzten. Zarauztaŕ bat zauriturta utzi zuten eta bi orduz diotska jardun zuan. Alako diots itun eta erdiragaŕirik! Alda menetako basetxetaraiño eldu zan aren ulua.

Oriotaŕ bati, eŕitik atera ta Zumaia'ra zeramatela esan zioten. Agerpen batzuk egin beaŕ dizkiguza ta Zumai'ra!

Ontan, Getaria'ra; eŕitik iltokira. Eza gun izan bidea oriotaŕak eta igesari eman zion. Eŕukaŕia! Afapatu egin zuten eta afapatutakoan izkilo ondoarekin buru azuŕa apuŕtu. Zaspi tiro ondoren eta... ildakoen aŕtean bat geiago.

Iñor iltzen zutenean, etxekoren bat edo oto zan galdezka asten ziran guztiak, baiña, alperikakoak galderak eta alperika koak negaŕak. Ezin ezertxo ere jakin.

Txaunburu jauna ere erailtzeko izentatua zegon. Ofatio ere nolabait Frantze'ratzea lortu zuan. Txaneuskinlari edo organista Gaiztei'era eraman zuten agerpen batzuz egitera baiño ez zala-ta. Aŕezkero, ez da aren beŕirik.

Erailketok burutzen dituanen buru Goŕia izeneko bat da, falangetaŕa.

Constantina deritzaion emakume bat, bere semeak bulaŕ gaiñean ikuŕin monarkikorik ez zuala nai jaŕi-ta, atxilotu egin zuten.

—Beste guztiak jartzen dute ta zergatik ez zure semeak?

—Bai, bulaŕ-gaiñean jaŕiko du ikuŕin monarkikua; baiña, beste ikuŕin bat du biotzean!

Getaria'ra bialdutako "Rosario" itxas-ontziko itxas mutilak, Bilbao'n gertatzen zanaz egia esateaŕen bakaŕik, atxilotu egin zituzten. Ontzi-burua agerpen egitera eraman zuten Donostia'ra. Itxas-ontzia Getaria'ra bialdu izan ez ba'lute, egin negaŕgaŕia izango omen zan getariarentzat.

Wxueka anaiak Falange'ko buru ta eŕiko guda-zaingoko arduradun dira.

Iraiñez jaso zuten Euzko-Jaurlaritzako lendakari Agiŕ-taŕ Joseba Andoni jaun aguŕgaŕiak oguzitako itzaldia. Geure aŕtera bialdu dituzten emakumeai auxe esaten omen zieten, Jurtubai'taŕ Fulgencio'k batez ere:

—Bilbo'n Agiŕe baiño obetoago zaudete zuek emen. Ez nuke nai aretxen laŕupean egon!

Ez dago lanik Getaria'n. Kaia itxita egon da. Oraintxe asi da zerbait.

Izunetan, 80.000 laurleko inguru ezaŕi dituzte Getaria'n. Azkenengoz endore izanari, 30.000 laurlekokoa ezaŕi zioten. Beste ziñegotzi batzuei 6.000'bana laurlekokoa.

Agindu ematen diardute beti eŕian eta jendea zer entzungo lanoŕian.

Etxe-baŕuak saŕitan arakatzen dituzte. Malaga aŕtu zutenean, jaiak jaiaren gaiñean izan ziran. Eŕitaŕ guztiak kaleratzeko agindua aŕtu zuten eta ondoren... "ibilkunde" alakoa. "Muera Euzkadi, Irujo y los separatistas."

Diru-txartelak nai ta naiez Txinditegira eraman beaŕ ikuŕazteko.

Beti eskean eta saŕitan, nai ta naiez, eman egin beaŕ. Falangetaŕentzat soiñekoak dirala... jantokietarako dala... beti zerbait.

Abeŕtzaleak eta "txaketeruak" ei dagoz Getaria'n. "Abeŕtzaleak" (apuŕtu gaituzte!) abeŕtzaleak ei dira ta eŕepublikanoak "txaketeruak". Orixe esaten dute falan getaŕak.

Eleizkizun ondoretan, "viva España, viva Portugal, viva Italia" ta abaŕ. Paxistaŕ antzera aguŕtu beaŕ gaiñera.

Bi emkumei ilea moztu diete. E. A. B.'ko lendakaria da bietako bat

Umeak "flechas" ala "pelayos" taldetan saŕtu beaŕ; abeŕtzaleai irain egin eta "viva España"ka jardun.

Ezkioga'ko Ama irjiña ikustera (nai bai beintzat) asi ei dira beŕiro ere. Paxistaŕontzat, baiña, ez dira begiko ibilerok. Lengo batez Ataun'go "ikusleak" Ama Birjiña ikusi zuala ta paxistaŕak galduko zutela gudatea agertu ziola, esan zuan. Ufutiratzeko, gaiñera, andik paxistaŕ guztiak eta uzteko pakean "goŕiai" zorotzat etsi omen dute.

Getaria-inguruetan "brujo" (zorgiña) deitzen dioten bat dabil. Urteko lenengo lau ilabete baŕuan amaituko dala gudatea eta "goŕiak" irabaziko dutela esaten du dana-dalako zorgin oŕek. Paxistaŕak, alegiñak-alegin, ezin dute aŕapatu "zorgiñik".

Bilbo'ko iŕatsaiok entzuteko arduraz eta kontuz ibiltzen dira Getaria'n; leioak itxita ta al danik ixilien.

Biar, Euskalduna'n

Ukabilketa ospetsuenetakoa

GUZTIA DAGO BOROBILDUA, GUZTIA EGIÑA, SAŔERAK BERAKA. UKALBIKALARIAK GERTU. BIAR EUSKALDUNA'RATUKO DAN OSTETZA···!

Biar, Euskalduna pelota-tokian jokatuko dan ukabilketarako jendea, ikusmiñez, pil-pil dago. Gauŕ argi ta garbi iragaŕi genezakegu: etsi-aŕatsaldez Euskalduna, bete-beterik ikusiko degu.

Baztaŕetan ez da beste lelorik: etsiko ukabilketa ta ukabilketa. Zubiaga gora, ta Pinedo bera; Aranbilet or, Isasti an. Danetan da marmaŕa; danetan ukabilketa -leloa.

Izan ere, biar-aŕatsaldeko ukabilketa ez da noiz nai eta non-nai ikusten dana. Ukabilkalarien izenak irakuŕi bestela ta euren edestia gogoratu.

Eta... egiña dago guztia! Ukabilkalariak, eguneroko saioak egin ondoren, gertu daude ta bakoitza garaipenaren itxaropenez.

Jendea, zale-zale, pil pil, zorabiatuta antzo.

Saŕerak... berako edefa eginda.

Epai-maia izentatuta.

Guztia dago borobildua, guztia egiña. Baita gurea ere.

Isasa'taŕ Peli jaunari.

Sondika'ra.

Aguŕ Pasai geure aberkide ori!

Astearteko EGUNA'n "Pasai kirio, uts" irakuŕi zendula-ta, ulertu gabe gelditu zitalako, zer esan nai genduan galde dagidazu.

Bejondaizula, Pasai! Aŕatsak zuzendu egin bear dira beti ta zuk orixe egin dezu. Gu-geuk "Pasai kirio-uts" idatzi genduŕ, baiña, "liñotipistak" "Pasai kirio, utz" jaŕi ziguten. "Pasai kirio-uts" (Pasai todo nervio) jaŕi gendun guk.

Esker milaren zeuri, Pasai, ta jaŕai EGUNA irakurtzen eta akatsak zuzentzen.

Agindu beti Jel-baitan

M'ri.

Deia

PELOTARIAK, PALAKOAK, EREMONTEKOAK

Ardura dien auzi bat aztertzeko, lenbailen Euzko-Gudarostia'ra, Gran Via, 45, Zabalkunde-taldera, aŕatsaldeko 4'etatik 6'rak bitartean, erdutzeko dei egiten diegu bizibidea pelotaritzatik atetatzen duten guziai.

Euzko-gudarietan dabiltzenak, idatzi lezakigute; baita aitatutako orduetan 17.970 zenbakiko uŕutizkeñera dei egin ere.

Kirol Batzordea.

UKABILKETAKO EPAI-MAIA

"Ring"eko arduradun, Etxebaŕia'taŕ Benita.

Lenengo epaile, Mendieta.

Bigaŕen epaile, Aŕigoŕiaga.

Irugaŕen epaile, Olazabal'daŕ Jon.

Zuzentzaileak: Calvete (Gipuzkoa'ko zuzentzaile Batza'koa) eta Matxin (Kantauriako zuzentzaile Batzakoa).

Oagileak, Kandina jauna eta Eguzkitza'taŕ Peli jauna.

"Speaker", Biteri'taŕ Bingen.

Miñutu-zenbalari, Uŕutia'taŕ Jon.

Bigaŕenak (alkandora ta galtza zuriak), Anduetza, Txena, Garmendia eta Albóniga.

Oaŕa.—Euzkadi'ko txapeldunai geriko bana emango diete oroigaŕi.

Madrid'era begira

"New-York Herald Tribune"ren izparrak

Paxisten aurrerakadei eusteko il edo bizi gudatu dabe españar erkaldarrak.-Madrid gañean egoan arriskua aldendu dala dirudi.

Madrid. — Otsalaren 6'gna. ezkero asaldariak Valencia'tik Madrid'erako bitxabala eurengandu nai izan daben unean, Jarama guda oiñeta eŕi-aldezlik leguan asi eben erasoai gaur, be, idorez jaraitu dautse.

Madrid'tik, gaiñean egoan aŕiskua aldendu zala irudian atzo gabaz. Eŕi-aldezlien garaipena zeiñen aundia dan ezin jakori daike egun batzuk igaro arte. Joaldiak eŕ-aldezliak astea egiz jazokun aŕigaŕia da.

Paxisten auŕerakadei eusteko il edo bizi gudatu beaŕa izan dabe eŕi-aldezliak, ez bakaŕik Arganda'ko zubi-inguruetan, Tajuna ibai-onduan, be, bai; mentxe Perales-ufean eurengandu nai zan eben bitxabala paxistok.

Amaŕ egunen buruan iñundiko aleginak egin eta atzo eŕi-aldezlien joaldiei iru aldiz eutsi ostean, paxisten rudariak aulduta egozan eta orduantxe asi eban Miaja Gudalburua'k erkaldaŕen joaldia.

Aŕeŕietako izpaŕiariak atzo egon ziran Miaja Gudalburua'kin eta onek beronen poza ta baikortasuna agertu euzan.

Joaldioi gudaroste-talde bik asi ebela alderdi bitatik; batzuk Jarama Egoalderuntz jo eben eta besteak Mara ñosa'runtz.

Joaldiaren baŕi ziatz-ziatz ezin emon eikela baiña erkaldaŕak auŕera egin ebela, asaldariak eurak, be, joaldiari adorez eutsi eutsenaŕen.

"Oraiñarte joaldi guztiak paxistak asi ebezala ta eŕi-aldezliak aren eraso ei eutsi ta botarteak esitu besterik ez ebela egiten, esan eban Miaja Gudalburua'k. Orain ostera eŕi aldezliak asi yakuz joten ta auŕeraka ta besteak esi-zaratu beaŕa izango dabe."

Joaldi onek gudarien gogoak asko poztu ta suspertuko dauz eta guda-arauz ondo ikasia da erasuoi. Malaga jausi zan-ezkero aulduta genduzan eta Valencia'tik Madrid'erako bitxabala paxistak menderatuko ebela uste zan. Paxistak Madrid bira guztia esituko ebela ta gosearen-gosez eurendik aldiko ebela uste zan lenengotan.

Madrid'go guda-oiñetako aginpidedun Miaja Gudalburua egiteak, bere ondorenak beingoan darakusguz. Azkenengo asteotan naizer-ikasi izan dau Gobernua'k eta ikasi dauzanak on aundia egin dautsoe.

Madrid'go "A B C" izpaŕingiak auxe diñosku atzoko idazlan baten:

"Malaga jausi zan ezkero Malaga galtzearen eŕudun agintari nagusiak egin nai dabez ta azalpide edo argibiderik ez daben ondamendi batzuen jatoŕiak Gobernua'k arakatu dagiazala diñoe.

Gobernua'k bere asmoak egi biurtu dagizan giro ona beaŕ dauanez eŕitaŕen artean, agintari batzuei buruz esan diranak guzurpetu dagiazala guzurai-ba-dira ta oŕein aurka jardutea galeraz dagiala eskatzen dogu edo betela esaten diranak oñaŕirik ba-dautuok argitu ta erabagi dagi

ZUZENTZA ESKE

Lan-sariak dirala-ta langilleak zital Alemani'n

Berlin. — Lan-sariak dirala-ta, gora-gorake baŕenak asi yakuez Alemania'ko langiliei ta baŕenako gora goraka oŕeik irakin-agiñean daukez ta agiriz oraingo esiok etenea, be, izan daike.

España'ko auziak arduretan daukez langileok eta España'ra gudaŕirik bialtzerik ez dabe nai.

Alemania'n danik arazorik zailenetarikoa ango diru autua dogu; diruz ta janariz laŕ-laŕi doguz alemandaŕok.

Olaetan langileei emoten yakuezan lan-sariekin jateko beaŕ-beaŕeko yakoezan janariŕik erosi eziñean dabiltzan emakumeak asaŕe-bizitan doguz.

Diru auzioi ezin erabagi izango dabe "nazi-buruok" ta guda-gai ta tresnak egin eta guztiak gudari egitea beste asmorik ez dau Alemania'ko Gobernua'n.

Alemandaŕak gora goraka asi yakuz ta Gobernua'ren urkako matxiñadaren bat sortzea ez litzake miragaŕi izango.

Lengo ilean Goering'ekin izan ebazan jardunen baŕ emongo dautsoe Mussolini'k bere lagunkideei ta España'n alkaŕekin jokatzeko Italia'k eta Alemania'k dauken beaŕizana azalduko dautse. Batzaŕ oŕetan beste Lateŕi-baŕuko arazo astun batzuk, be, arakatuko dira; arazo oein aŕtean Italia'k jaiotzak geitu daitezan zabalgundea egin beaŕa dogu.

EGUNA JEL

Argazki-ingoskia

Gaurtik asita larunbat gustietan argazki orri berezia argitalduko dogu

Lgo. urtia | 44'gn. zenbakija | Idazkolea ta banakolea: Correo, 17'gn. | Bilbao'n 1937'gn. otsalla 20'gna. larunbata | 15 eunen

ARGAZKI-INGOSKIA



Esiz, obeluago ornidurako efirik, ez ei-da Txina bano. Ofa ikusi, mendiak ziafkatute« dauzan esi ofein zertzelada bat. Zeinbat urteren lan-bidez egiñak-ete dira!

Salsamendi gudalorna guda-oñetara juateko ertaizen.

Basakatu edo tigrea basatirik ikaragarriena izan arren, gizonaren maita sumera bigundu egiten da kukunki lokatu ezkero.

¿Nun-ete?

E. C. A., iru tzkloi erantzuten d a izeneko neskatila au aldendu da bere etxetik. Inok eztaki ezer jazo-ete yakonentz, igazi diran ogei egunotan. Beraz inok bere bafirik-edo baleu, jakinazo beyoe agindarieri, naiz 13.005 urutizkin zenbakira deituaz, erantzungo dautsonari.

Ona emen emakume lirain bi. Efonkarikoen janzki txukunakaz, euren Itzaraxuba eskubetan dabela.



Guda oñetan esiak egiteko aranzadun burnariak egokiak izaten dira ta. ofa eruan mordoxka bat.

MARTIRIAK

Abefiaren ziñopa ugari eragin dauz paxista ankefak sorturiko guda itzal eta nardagafi onek.

Oraingo au Afetxea'taf Alberta dogu.

Abefizale sutsu ta biozkof, lez, bere gogo ta biotza abefiari eskiñiak ebazan.

Efibera aldetik zabalkundean ibilten zan, napaf itsuak Abefiarentzat irabazten.

Orain abeiak bera irabazi dau, betiko zoriona emonaz.

Goyan bego.

Basakan ta gizon a, alkafekin apalten.